



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

AMASA-VILLABONAN HITANOAREN EGOERAREN AZTERKETA, 2020

IKERKETA KUANTITATIBOA



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNA

AZTIKER IKERGUNA
www.aztiker.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA OHARRAK	3
3. EMAITZAK	5
3.1. INKESTATUEN EZAUGARRIAK	5
3.2. HITANOAREN ERABILERA KOMUNIKAZIO EGOERAREN ARABERA	9
3.2.1. HITANOAREN ERABILERA (I): FAMILIAKIDE ETA BIKOTEKIDEAREKIN	11
3.2.2. HITANOAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOAZ HAINBAT GAKO	15
3.2.3. HITANOAREN ERABILERA (II): LAGUNARTEAN	21
3.2.4. HITANOAREN ERABILERA (III): GAILU ELEKTRONIKOEN BIDEZKO KOMUNIKAZIOA	25
3.3. HITANOAREN ERABILTZEKO ALDAERAK	29
3.3.1. HIKA ETA ZUKAREN ARTEKO AUKERAKETA	29
3.3.2. TOKA ETA NOKAREN ARTEKO AUKERAKETA	33
3.4. HITANOAREN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA GAUR EGUN	36
3.4.1. HITANOAREN ERABILTZEKO ARRAZOIAK	36
3.4.2. HITANOAREN EGOERA AMASAN	39
3.4.3. HITANOAREN EGOERA VILLABONAN	42
3.5. HITANOAREN ERABILERA BULTZATZEKO PROPOSAMENAK ETA PARTE HARTZEKO PRESTUTASUNA	45
3.6. AMAIERAKO OHARRAK	52
4. ONDORIOAK	55

1. SARRERA

Jarraian datorrena Amasa-Villabonako Udalarentzat egindako ikerketaren emaitza da. Ikerketa hau 2020ko urriaren 30a eta azaroaren 28a bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia osatzerakoan oinarri bezala hartu da Azpeitian 2018an Garbiñe Bereziartua eta Beñat Muguruzak egindako inkesta.

Aurkeztu den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da. Ahalik eta xeheen deskribatzen da, edozeinentzat lagungarri izan dadin, etorkizunean beste udalerriren batek ikerketa berdina egin nahiko balu.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartuko gara:
 - o Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkeztuko dira.
 - o **Komunikazio egoera ezberdinetan hitanoak duen erabilera** aztertu da: familiakide edo bikotekidearekin egiten den erabilera, lagunarteko erabilera edota gailu elektronikoen bidezkoa.
 - o **Hitanoa erabiltzeko aldaera ezberdinak** ikertu dira ondoren: euskaraz hitz egiterako orduan, hika edo zuka hitz egitearen aukeraketa; elkarrizketa asimetrikoak ematen diren egoerak (pertsona batek zuka eta besteak hika egiten duenean); edota noka eta tokaren erabilera.
 - o Laugarren lekuan, **gaur egun herritarren artean hitanoari buruz dagoen pertzepzioa** aztertu da, hau da, inkestatuei galdetu zaie Amasan eta Villabonan hikak eta bere aldaera ezberdinek (nokak eta tokak) beren ustetan zein egoera bizi duten.
 - o Amaitzeko, **hitanoaren erabilera bultzatzeko herritarrek duten prestutasuna** neurtu da eta, era berean, **erabilera sustatzeko dituzten proposamenak** ere jaso dira.

2. METODOLOGIA OHARRAK

UNIBERTSOA: 14 urtetik gorako Amasa-Villabonako herritar elebidunak. Garai honetan, zehazki, 14 urtetik gorako **4.882** lagun zeuden erroldatuta¹. Bestalde, euskara gaitasunari dagokionez, Eustatek 2018an argitaratutako udalerrikako datuen arabera (sexua eta adin tartearen arabera banatutako datuak) kalkulatu da 14 urtetik gorako herritar elebidunak **3.138** zirela.

Amasa-Villabonako 14 urtetik gorako herritar elebidunak, adin eta sexuaren arabera			
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
14-17 urte	117	104	221
18-34 urte	324	366	690
35-49 urte	430	365	795
50-64 urte	378	349	727
65+ urte	380	325	705
Guztira	1.629	1.509	3.138

LAGIN TEORIKOA: Gutxienez **360** herritar inkestatzea izan da ikerketaren helburua, errore-maila % +/-4,0koa izateko, % 95eko konfiantza-mailarako baldin eta laginketa probabilitikoa egingo balitz. Horrez gain, inkestatuek adin eta sexuaren arabeko kuotak izan dituzte:

Amasa-Villabonako 14 urtetik gorako herritar elebidunen artean hartu beharreko lagina, adin eta sexuaren arabera			
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
14-17 urte	13	12	25
18-34 urte	37	42	79
35-49 urte	49	42	91
50-64 urte	43	40	83
65+ urte	44	37	81
Guztira	187	173	360

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 14 urtetik gorako Amasa-Villabonako herritar elebidunak (**3.138**)

Lagin teorikoa: **360** herritar.

Lagin erreala: **504** herritar.

Landa-lana: 2020ko urriaren 30a eta azaroaren 28a bitartean.

Errore-maila: Inkesta honek ez du laginketa probabilitikorik izan, ondorioz, ezin da errore maila bere horretan kalkulatu. Laginaren tamainaren arabera, ausazko laginketa sinplea izango balitz, gehieneko errore-maila % +/-4,0koa izango litzateke, % 95eko konfiantza-mailarako.

¹ Eustat, 2019.

LAGIN ERREALA: 504 herritarrek bete dute galdetegia. Adin eta sexuaren arabera horrela geratu da lagina:

Amasa-Villabonako 14 urtetik gorako herritar elebidunen artean eskuratu den lagina, adin eta sexuaren arabera			
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
14-17 urte	37	40	77
18-34 urte	58	54	112
35-49 urte	79	50	129
50-64 urte	54	41	95
65+ urte	50	41	91
Guztira	278	226	504

HAZTATZEA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren arabera haztatu da lagina. Ondorengo balioak aplikatu zaizkio lagineko multzo bakoitzari:

Lagina osatzen duten talde bakoitzari aplikatu beharreko haztatze koefizientea		
	Emakumezkoak	Gizonezkoak
14-17 urte	0,49326	0,42117
18-34 urte	0,89559	1,09192
35-49 urte	0,87077	1,17928
50-64 urte	1,11792	1,36966
65+ urte	1,23543	1,26693

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta. Zehazki, galdetegia osatzerakoan oinarri bezala hartu da Azpeitian 2018an Garbiñe Bereziartua eta Beñat Muguruzak egindako inkesta.

LANDA-LANA: 2020ko urriaren 30a eta azaroaren 28a bitartean egin dira inkestak. Landa lana egiteaz Uxo Elustondo Arzallus eta Ainara Ansa Irazusta arduratu dira; inkesta sozializatzear, komunikatzear, online inkestaren zabalpenaz eta abar. Aztikerreko teknikariek euskarri digitalean jasotzen ari ziren inkesten jarraipena eta kontrola egin dute eta datuak helarazi dizkiete landa lanaz arduratu diren kideei maiztasun jakin batekin, landa lanaren jarraipenerako laguntza eskainiz.

ERRORE MAILA: Inkesta honek ez du laginketa probabilitistikorik izan. Ondorioz, ezin da errore maila bere horretan kalkulatu. Laginaren tamainaren arabera, ausazko laginketa sinplea izango balitz, gehieneko errore-maila % +/-4,0koa izango litzateke, % 95eko konfiantza-mailarako.

3. EMAITZAK

3.1. INKESTATUEN EZAUGARRIAK

Inkestatuen artean, emakumezkoek pisu zertxobait handiagoa dute gizonek baino (%51,8 eta %48,2 hurrenez hurren). Adinari dagokionez, inkestatuen erdiek 45 urte baino gehiago dituzte (%50,8) eta beste ia erdiek 14 eta 45 urte artean (%49,2)².

Galdetegia erantzun dutenen artean, ia hamarretik sei Villabonan edo Amasan jaio dira (%46,1 eta %12,2 hurrenez hurren). Herritarren beste ia hamarretik lau Gipuzkoako beste udalerriren batean jaiotakoa da (%38,2), beste %2,5 Euskal Herriko gainerako herrialderen batean jaiotakoa da eta gainontzeko %1,0 Euskal Herritik kanpo jaiotakoa. Bestalde, bizilekuari dagokionez, inkestatuen gehiengoa Villabonan bizi da (%82,2) eta gainerako %17,8 Amasan.

Udalerrian bizitzen zenbat denbora doazen galdetuta, herritarren erdiak baino gehiagok (%56,5) bertan jaio direla erantzun dute. Galdetegia bete dutenen beste %10,8 adin txikikoak zirela iritsi ziren Amasa-Villabonara, eta gainerako inkestatuen herena (%32,7) 18 urteak bete ondoren.

Galdekatuen hiru laurdenak dio bera edo bere gertuko familiakideren bat baserri mundukoa dela (%75,2k). Ehuneko hori bereziki altua da 55 urtetik gorako inkestatuen artean, eta baita Amasan bizi direnen artean ere (%90 ingurukoa bi kasuetan).

Ikasketa mailari dagokionez, inkestatuen heren batek (%34,5) ez du ikasketarik edo oinarrizko ikasketak ditu, eta bereziki adineko herritarren artean da altua ehuneko hori. Inkestatuen beste %37,6k erdi mailako ikasketak ditu (DBH eta Lanbide Heziketa bitartekoak) eta gainerako %27,9k unibertsitate ikasketak. Azken ikasketa horiek ehuneko altuagoa dute 50 urtetik beherakoen artean, eta bereziki emakumezkoen artean. Bestalde, lan egoerari dagokionez, galdekatutako herritarren erdia baino gehixeago (%52,0) lanean ari da. Herritarren %5,3 langabezian dago eta beste %16,1 ikaslea edo lana eta ikasketak konbinatzen dituen da. Bukatzeko, inkestatuen laurdena (%25,6) jubilatu edo pentsionista da.

Azkenik, inkestatuei zein hizkuntzatan hitz egiten sentitzen diren erosoan galdetuta, %93,9k adierazi du euskaraz izaten dela. Azpimarratzekoa da Amasan ehuneko hori %100era iristen dela, eta adin-tarteen arabera aztertuta, ehuneko baxuena herritar gazteenek adierazi dutela, hau da, 14 eta 18 urte bitartekoak %19,6k dio euskara ez den beste hizkuntza batean sentitzen direla erosoan.


² Kontuan hartu behar da aldagai horiek haztatuak daudela; beraz, Amasa-Villabonako herritar elebidunen errealtatearekin guztiz bat egiteko egokituak izan dira.

Inkestatuaren generoa*

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Emakumezkoa	261	51,8
Gizonezkoa	243	48,2
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


*Aldagai hau haztatua izan da Amasa-Villabonako herritar elebidunen pisu demografikoaren arabera.

**Inkestatuaren adin tartea***

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
14 eta 18 urte artean	42	8,3
19 eta 25 urte artean	57	11,3
26 eta 35 urte artean	54	10,6
36 eta 45 urte artean	96	19,0
46 eta 55 urte artean	74	14,6
56 eta 65 urte artean	76	15,1
66 eta 75 urte artean	70	13,9
75 urte baino gehiago	36	7,2
Guztira	504	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

*Aldagai hau haztatua izan da Amasa-Villabonako herritar elebidunen pisu demografikoaren arabera.

**Inkestatuaren jaiolekua**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Amasa	62	12,2
Villabona	232	46,1
Gipuzkoako beste udalerri bat	192	38,2
Euskal Herriko beste herrialde bat	13	2,5
Euskal Herritik kanpo	5	1,0
Guztira	504	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Inkestatuaren gaur egungo bizilekua


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Amasa	89	17,8
Villabona	415	82,2
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Zenbat urtetatik bizi den Amasa-Villabonan**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bertan jaio zen	285	56,5
1 eta 17 urte artean zituela	54	10,8
18 eta 29 urte artean zituela	93	18,4
30 urte baino gehiago zituela	72	14,3
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Baserrian bizi al zara edo zure gertuko familiakideren bat baserritik al dator?**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	379	75,2
Ez	125	24,8
Guztira	503	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Ikasketa maila


	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Ikasketarik ez edo oinarritzko ikasketak	174	34,5
Erdi mailako ikasketak (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa)	190	37,6
Unibertsitate ikasketak	141	27,9
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Lan egoera**


	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Lanean	262	52,0
Langabezian	27	5,3
Ikasten	62	12,4
Lana + Ikasi	19	3,8
Jubilatua / pentsionista	129	25,6
Beste bat	5	1,0
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Orokorrean, zein hizkuntzatan sentitzen zara erosoago?**

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Euskaraz	454	93,9
Euskara ez den beste hizkuntza batean	30	6,1
Guztira	483	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.2. HITANOAREN ERABILERA KOMUNIKAZIO EGOERAREN ARABERA

Atal honetan, lehenik eta behin, ezagutu nahi izan da inkestatuek zer-nolako harremana duten hitanoarekin. Inkestatuei haien inguruan jendeak hika hitz egiten duen edo berak hika hitz egiten entzuten duen galdetuta, %8,1ek adierazi du beti entzuten duela inguruan eta beste %83,9k batzuetan entzuten duela. Sexuaren arabera, gizonezkoen inguruan gehixeago entzuten dela adierazten dute datuek (gizonezkoen %4,8k esan du bere inguruan ez duela hika entzuten eta emakumezkoen %10,9k). Horretaz gain, adinaren arabera gurutzatuta, bi adin-tarte dira hikaren presentzia handiena adierazten dutenak; batetik, 65 urtetik gorakoak eta, bestetik, 19 eta 35 urte bitarteko herritarrak. Bukatzeko, argi ikus daiteke Amasan hikaren presentzia altuagoa dela (%16,3k inguruan beti entzuten dutela dio) Villabonan baino (%6,3).


Bestalde, hikarekin kontaktua zein kanaletatik izaten duen galdetuta, lagunartea eta familia dira gehien aipatzen diren testuinguruak (%69,5ek eta %67,3k inguru horietan izaten du hikarekin harremana) eta, ondoren, orokorrean kalean izandako kontaktua aipatu da hirugarren lekuan. Azpimarratzekoa da gizonezkoen artean lagunarteak duen indarra (%84,1ek aipatu du) emakumezkoen artean baino askoz altuagoa dela (%55,9) eta, aldiz, familia gehiago aipatu dute emakumezkoek gizonezkoek baino.

Laugarren lekuan aipatu da hikarekin ikastetxean izan dutela harremana (%19,9), eta hurrengo testuinguru edo espazioek indar txikiagoa izan dute: gastronomia elkarteak (%18,0), telebistak (%14,3), gaztetxeak (%11,0), liburuek (%10,2) eta abar.

Zure inguruan jendeak hika hitz egiten al du edo hika hitz egiten entzuten al duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, beti	41	8,1
Bai, batzuetan	420	83,9
Ez, inoiz ez	40	8,0
Guztira	500	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Nola izan duzu hikarekin kontaktua?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Lagunartean	350	69,5
Familian	339	67,3
Kalean	305	60,5
Ikastetxean	100	19,9
Gastronomia elkartean	91	18,0
Telebistan	72	14,3
Gaztetxean	55	11,0
Liburuetan	52	10,2
Irratian	46	9,2
Aisialdiko ekintzetan	42	8,3
Sare sozialetan (Facebook, Whatsapp, Instagram, Twitter...)	41	8,1
Abestietan	40	8,0
Eskola liburuetan	31	6,1
Jubilatuetan	21	4,2
Ez dut inoiz hika hitz egiten entzun edo irakurri	17	3,3
Egunkarian	14	2,8
Aldizkarian	9	1,8
Beste bat	14	2,8
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.2.1. HITANOAREN ERABILERA (I): FAMILIAKIDE ETA BIKOTEKIDEAREKIN

Atal honetan aztertu dena zera izan da: inkestatuek hurbileko familiakideekin edota bikotekidearekin nola hitz egiten duten, bai norabide batean (inkestatuak beste pertsonari nola hitz egiten dion), baita kontrakoan ere (inkestatuari nola hitz egiten dioten). Horretarako gertuko familiakideen zerrenda bat eman zaio inkestatuari eta bakoitzarekin nola hitz egiten duen esateko hainbat erantzun aukera posible jarri zaizkio, ondorengoak: beti edo gehienetan hika, beti edo gehienetan zuka, euskara eta erdara nahasian eta beti erdaraz³.

Inkestatuak hurbileko pertsonen nola egiten dien erantzutean, argi ikusten da gutxienez bi faktorek asko baldintzatzen dutela jokaera hori; batetik, sexu/generoak, hau da, gizonezkoei emakumezkoei baino hika gehiago egiteko joera nabarmena da. Eta bestetik, interlokutorearen adina: inkestatuak hika gehiago egingo du parean duen pertsona bere adinekoa edo gazteagoa bada, eta zukara gehiago joko du parekoa helduagoa bada.

Bi faktore horiek elkarren artean nahasi egiten dira, eta emaitza da Amasa-Villabonako herritarrek hika gehien hitz egiten dioten pertsona "anaia" dela (anaia dutela esan duten inkestatuen %41,3k beti edo gehienetan hika egiten dio). Ondoren dator "ahizpa edo arreba" (%29,4). Hirugarren eta laugarren postuan "semea" eta "alaba" agertzen dira (%16,6 eta %5,0 hurrenez hurren). Eta hortik behera, oso ehuneko txikiekin, "aita" (%4,6), "bikotekide gizonezkoa" (%4,4), "bikotekide emakumezkoa" (%4,1) eta azkenik "ama" (%1,1).

Norabidea aldatuz gero, hau da, hurbileko pertsonen nola hitz egiten dioten inkestatuari, zerrendaren ordena aldatu egiten da. Kasu honetan ere "anaia" eta "arreba" dira inkestatuari hika gehien egiten diotenak (%39,0 eta %27,9 hurrenez hurren). Baina ondoren adinak markatutako aldaketa bat dator zerrendan, alegia, familiakide helduenek hika gehiago egiten diote inkestatuari familiakide gazteenek baino. Gauzak horrela, hirugarren eta laugarren tokian daude "aita" eta "ama" (%26,2 eta %15,9k beti edo gehienetan hika). Eta oso tarte handira gelditzen dira bikotekideak eta seme-alabak, %5etik behera kasu guztietan.

Bukatzeko, inkestatuak bere buruari nola egiten dion ere galdetu da. Galdekatuen ia laurdenak (%23,9) adierazi du bere buruari hika egiten diola beti edo gehienetan, %67,5ek beti edo gehienetan zuka, %6,3k euskaraz eta erdaraz nahastuta eta gainerako %2,4k beti erdaraz. Norberak bere buruari hika egiten dion kasuetan, bereziki altuagoa dela ikusten da gizonezkoen artean (%36,0), adin nagusikoen artean (%43,0), Amasan bizi direnen artean (%33,5) edota gurasoek hika egin izan dieten inkestatuen artean (%55etik gora).

³ Inkestatu batzuen aldetik ohar bat jaso zen esanez beraien erantzuna ez zela emandako aukeretan sartzen. Adineko pertsonen artetik iritsi zen aipamen hau. Zehazki, gurasoei hitz egiterako orduan, "berorika" aritzen zirela aipatu zuen, eta beraz, ezin izan zuen beraiek nahi zuen erantzuna markatu. Aurrerantzean egingo diren ikerketetan kontuan hartzeko moduko aipamena da, galdesorta hobetzeari begira.

INKESTATUEK NOLA EGITEN DIETEN familiakide eta bikoteari



		Maiztasuna	Ehuneko (%)
Amari	Beti edo gehienetan hika	5	1,1
	Beti edo gehienetan zuka	406	83,0
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	34	7,0
	Beti erdaraz	44	9,0
	Guztira	488	100,0
Aitari	Beti edo gehienetan hika	21	4,6
	Beti edo gehienetan zuka	367	79,2
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	30	6,5
	Beti erdaraz	45	9,7
	Guztira	463	100,0
Ahizpaki / arrebari	Beti edo gehienetan hika	98	29,4
	Beti edo gehienetan zuka	181	54,4
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	38	11,4
	Beti erdaraz	16	4,9
	Guztira	334	100,0
Anaiari	Beti edo gehienetan hika	154	41,3
	Beti edo gehienetan zuka	171	45,6
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	31	8,2
	Beti erdaraz	18	4,9
	Guztira	374	100,0
Alabari	Beti edo gehienetan hika	12	5,0
	Beti edo gehienetan zuka	208	87,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	16	6,7
	Beti erdaraz	2	0,8
	Guztira	238	100,0
Semeari	Beti edo gehienetan hika	43	16,6
	Beti edo gehienetan zuka	202	77,6
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	14	5,5
	Beti erdaraz	1	0,4
	Guztira	260	100,0
Inkestatuak bikotekide emakumezkoari (oraingo bikotekideari edo izandako azkenari)	Beti edo gehienetan hika	11	4,1
	Beti edo gehienetan zuka	206	78,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	31	11,6
	Beti erdaraz	15	5,8
	Guztira	263	100,0
Inkestatuak bikotekide gizonezkoari (oraingo bikotekideari edo izandako azkenari)	Beti edo gehienetan hika	12	4,4
	Beti edo gehienetan zuka	195	73,1
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	42	15,9
	Beti erdaraz	17	6,6
	Guztira	266	100,0
Zeure buru barruan hitz egitean nola egiten duzu? (Adib.: ``Etxeko biden ogiya erosi behar det/diñat/diat´´)	Beti edo gehienetan hika	120	23,9
	Beti edo gehienetan zuka	338	67,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	31	6,3
	Beti erdaraz	12	2,4
	Guztira	501	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Familiakide eta bikoteek NOLA EGITEN DIETEN INKESTATUEI

		Maiztasuna	Ehuneko (%)
Amak	Beti edo gehienetan hika	79	15,9
	Beti edo gehienetan zuka	329	66,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	46	9,3
	Beti erdaraz	41	8,3
	Guztira	495	100,0
Aitak	Beti edo gehienetan hika	122	26,2
	Beti edo gehienetan zuka	262	56,2
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	32	6,9
	Beti erdaraz	50	10,6
	Guztira	466	100,0
Ahizpak / arrebak	Beti edo gehienetan hika	95	27,9
	Beti edo gehienetan zuka	188	55,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	37	10,8
	Beti erdaraz	19	5,7
	Guztira	339	100,0
Anaiak	Beti edo gehienetan hika	145	39,0
	Beti edo gehienetan zuka	179	48,0
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	33	8,8
	Beti erdaraz	16	4,2
	Guztira	373	100,0
Alabak	Beti edo gehienetan hika	4	1,8
	Beti edo gehienetan zuka	216	89,7
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	18	7,3
	Beti erdaraz	3	1,1
	Guztira	241	100,0
Semeak	Beti edo gehienetan hika	10	3,8
	Beti edo gehienetan zuka	237	90,8
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	13	5,0
	Beti erdaraz	1	0,4
	Guztira	260	100,0
Bikotekide emakumezkoak inkestatuari (oraingo bikotekideak edo izandako azkenak)	Beti edo gehienetan hika	11	4,1
	Beti edo gehienetan zuka	206	77,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	34	12,7
	Beti erdaraz	15	5,7
	Guztira	265	100,0
Bikotekide gizonezkoak inkestatuari (oraingo bikotekideak edo izandako azkenak)	Beti edo gehienetan hika	10	3,7
	Beti edo gehienetan zuka	192	72,7
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	39	14,6
	Beti erdaraz	24	9,0
	Guztira	265	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

INKESTATUEK NOLA EGITEN DIETEN familiakide eta bikoteari**Familiakide eta bikoteek NOLA EGITEN DIETEN INKESTATUEI**

LABURPEN TAULA. Familiakide edo bikotekidearekin beti edo gehienetan hika

	Inkestatuak hitz egitean (%)	Familiakideak hitz egitean (%)
Anaia	41,3	39,0
Ahizpa / arreba	29,4	27,9
Semea	16,6	3,8
Alaba	5,0	1,8
Aita	4,6	26,2
Bikotekide gizonezkoa	4,4	3,7
Bikotekide emakumezkoa	4,1	4,1
Ama	1,1	15,9

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.2.2. HITANOAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOAZ HAINBAT GAKO

Aipatu berri dugun atalean, inkestatuek familiako eta gertukoenekin nola egiten duten eta familiakide haiek nola hitz egiten dieten aztertu da. Datu hauek ikusita hainbat galdera sortzen dira eta, besteak beste, galdera hauetako bat ondorengoa da: nola dago gaur egun Amasa-Villabonan hitanoaren etxeko transmisioa?

Hasteko eta behin, gurasoek inkestatuei nola hitz egiten dieten ikusi da. Eta zehazki, generoak jokatzeko duen paper garrantzitsua kontutan hartuta, gurasoek nola hitz egiten dieten emakumezkoen zein gizonezkoen. Inkestako datuek erakusten dutenez, inkestatuen artean kasuen %16 inguruan hika egiten dietela adierazi dute herritarrek (zertxobait altuagoa da emakumezkoen kasuan gizonezkoen artean baino, %16 eta %15 hurrenez hurren). Beste %65 ingururi zuka egiten diete eta %18 ingururi erdaraz edo euskara eta erdara nahasian. Inkestatuen aiten kasuan datuak aldatu egiten dira, ordea. Emakumeen %16ri egiten die aita hika, (amen ehuneko berdinean). Inkestatua gizonezkoa denean aldiz, aiten %36k egiten diete beti edo gehienetan hika, emakumezkoen bikoitza.

Hortaz, esan daiteke Amasa-Villabonako emakumezkoen %16ri hika egiten dietela gurasoek, ama zein aita ehuneko berean. Gizonezkoen kasuan aldiz, ama neurri berean egiten diete hika (%15) eta aita bikoitza baino gehiago (%36).

Eta nola egiten diete inkestatuek beren seme-alabei? Datu horietan ikus daiteke hitanoaren transmisioa behera egiten ari dela, hau da, gurasoen aldetik hitanoa jaso dutenen ehunekoa baino txikiagoa dela seme-alabei transmititzen zaiena. Hala ere, neurri desberdinean gertatzen da fenomeno hau, generoaren arabera.


Seme-alabak dituzten inkestatu emakumezkoen artean, alabari %3k egiten dio hika eta %87k zuka (emakumezko hauek amaren zein aitaren aldetik %16k hitanoa jaso dute). Semeei, oster, hika gehiago egiten diete alabei baino, kasuen %10ean, alabei baino hiru aldiz gehiago. Inkestatua gizonezkoa den kasuetan altuagoa da hikaren erabilera seme-alabekiko, baina hemen ere alabei gutxiago hitz egiten zaie (%7) semeei baino (%24), kasu honetan ere hiru aldiz gehiago.

Laburbilduz, Amasa-Villabonako hiru belaunaldiren arteko transmisioa aztertuta, ondoriozta daiteke hitanoaren transmisioa behera egiten ari dela. Galera hori, baina, modu ezberdinean edo intentsitate ezberdinarekin gertatzen da pertsonaren generoaren arabera. Emakumezkoak tarteko dauden ekintza komunikatiboetan, bereziki emakumeen arteko elkarrizketetan, galera indartsuagoa da gizonezkoen artean baino.

Familia bidezko transmisioaz hainbat gako

		Emakumezkoei (%)	Gizonezkoei (%)
Amak zuri nola egiten dizu/zizun	Beti edo gehienetan hika	16,5	15,3
	Beti edo gehienetan zuka	63,7	69,5
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	10,4	8,0
	Beti erdaraz	9,4	7,2
	Guztira	100	100,0
Aitak zuri nola egiten dizu/zizun		Emakumezkoei (%)	Gizonezkoei (%)
	Beti edo gehienetan hika	16,9	36,1
	Beti edo gehienetan zuka	61,7	50,4
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	9,2	4,6
	Beti erdaraz	12,2	8,9
	Guztira	100	100,0
Zuk alabari nola egiten diozun		Emakumezkoek (%)	Gizonezkoek (%)
	Beti edo gehienetan hika	3,3	7,3
	Beti edo gehienetan zuka	87,2	87,9
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	8,8	3,9
	Beti erdaraz	0,7	0,8
	Guztira	100	100,0
Zuk semeari nola egiten diozun		Emakumezkoek (%)	Gizonezkoek (%)
	Beti edo gehienetan hika	10,6	24,4
	Beti edo gehienetan zuka	83,0	70,6
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	6,1	4,7
	Beti erdaraz	0,3	0,4
	Guztira	100	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020*



Segidan datorren taulan inkestatu emakumezkoen datuak hartu dira eta gurutzatu dira amak eta aitak hitz egiteko modua (hika, zuka, euskara / erdara nahasian eta erdara) eta seme-alabei hitz egiteko modua.

Eta taulak erakusten dituen datuek indartu egiten dute lehentxeago aipatutako ideia: gurasoen aldetik hitanoa jaso duten emakume gehienek ez diete transmititzen beren seme-alabei, bereziki alabei.

Alabaren kasuan, gurasoengandik hika jaso dutenen artean %13k transmititzen die beren alabei. Beste kasu guztietan (%87) beti edo gehienetan zuka erabiltzen dute alabarekin. Horrez gain, gurasoengandik beti edo gehienetan zuka jaso dutenen artean %1ek erabiltzen du hika beren alabekin. Eta bukatzeko, gurasoengandik euskara eta erdara nahasian edo erdara soilik jaso dutenetatik inork ez du hika erabiltzen beren alabekin.

Alaba albo batera utzita, emakume inkestatuak semeekin dituzten praktiketan zertxobait ezberdina da joera. Gurasoengandik hika jaso duten emakumezkoen artean %30ek transmititzen die beren semei (alabei transmititzen dietenaren bikoitza baino gehiago). Beste kasu ia guztietan (%68) beti edo gehienetan zuka erabiltzen dute semearekin. Horrez gain, gurasoengandik beti edo gehienetan zuka jaso dutenen artean %4k erabiltzen du hika beren semearekin. Bukatzeko, gurasoengandik euskara eta erdara nahasian edo erdara soilik jaso dutenetatik inork ez du hika erabiltzen beren semeekin.

Hortaz, oso argi ikus daiteke inkestatu emakumezkoen artean hitanoaren transmisioa galtzen ari dela. Hau da, gurasoen aldetik hika jaso zutenen %13k soilik transmititzen die beren alabei eta %30ek beren semei. Bestalde, gurasoen aldetik zuka jaso duten pertsona batzuk badaude beren seme-alabei hika hitz egiten dietenak, baina oso ehuneko txikia da (%1 eta %4 artekoa).

Inkestatu emakumezkoak		Amak zuri				Aitak zuri			
		Beti edo gehienetan hika	Beti edo gehienetan zuka	Euskaraz eta erdaraz nahasian	Beti erdaraz	Beti edo gehienetan hika	Beti edo gehienetan zuka	Euskaraz eta erdaraz nahasian	Beti erdaraz
Zuk alabari	Beti edo gehienetan hika	13,2	1,3	0,0	0,0	13,4	1,4	0,0	0,0
	Beti edo gehienetan zuka	86,8	96,2	64,8	43,1	86,6	94,7	60,2	53,7
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	0,0	2,5	35,2	50,4	0,0	3,8	32,6	42,6
	Beti erdaraz	0,0	0,0	0,0	6,5	0,0	0,0	7,2	3,7
Zuk semeari	Beti edo gehienetan hika	29,3	3,9	0,0	0,0	31,5	4,2	0,0	0,0
	Beti edo gehienetan zuka	66,8	94,9	81,7	48,9	68,5	93,5	72,9	69,8
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	3,9	1,2	18,3	46,8	0,0	2,3	27,1	26,4
	Beti erdaraz	0,0	0,0	0,0	4,2	0,0	0,0	0,0	3,7

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Inkestatu gizonezkoen artean datua oso antzekoa dela ikus daiteke. Hau da, gurasoen aldetik hitanoa jasotzen dutenen kasuan, %12k transmititzen diete beren alabei eta beste guztiek zuka egiten diete. Semea den kasuan, gurasoengandik hitanoa jaso dutenen %40 inguruk transmititzen die beren semeei hitanoa.

Gizonezkoen kasuan bada berezitasun bat, gurasoen aldetik zuka jaso dutenen %15 inguruk hika erabiltzen baitu beren semeekin. Nahiz eta hitanoaren transmisioaren galera esanguratsua izan, bada zuka jaso eta hika transmititzen duenik ere.

Aztertutik diren hiru belaunaldietan, ikusi da hitanoa etxean jaso duten inkestatuek errazago egiten dietela seme-alabei hika. Are gehiago, oso gutxi dira gurasoen aldetik hitanoa jaso ez eta beren seme-alabei egiten dietenak. Gurasoen aldetik jaso den euskara erregistroa eta seme-alabei transmititzen zaienaren artean eragina badagoela antzematen da eta eragin hori gehienetan estatistikoki esanguratsua da, hiltunen generoa zeinahi dela ere⁴. Hala ere, generoaren garrantzia beste behin agerian uzten du ikerketak, baita etxeko giroan ere: aztertutako konbinazio posible guztietan jasotzen dute semeek hitanoa maizago alabek baino, eta ia kasu guztietan aitek gehiagotan egiten diete hika seme-alabei amek baino.

Inkestatu gizonezkoak		Amak zuri				Aitak zuri			
		Beti edo gehienetan hika	Beti edo gehienetan zuka	Euskaraz eta erdaraz nahasian	Beti erdaraz	Beti edo gehienetan hika	Beti edo gehienetan zuka	Euskaraz eta erdaraz nahasian	Beti erdaraz
Zuk alabari	Beti edo gehienetan hika	12,8	5,3	22,1	0,0	11,9	0,0	0,0	12,4
	Beti edo gehienetan zuka	87,2	91,0	70,0	56,8	88,1	94,3	100,0	64,2
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	0,0	3,7	0,0	33,0	0,0	5,7	0,0	14,5
	Beti erdaraz	0,0	0,0	7,9	10,2	0,0	0,0	0,0	8,9
Zuk semeari	Beti edo gehienetan hika	36,4	19,0	17,7	37,3	41,9	9,8	0,0	13,0
	Beti edo gehienetan zuka	58,1	77,2	82,3	37,3	55,3	87,4	100,0	54,2
	Euskaraz eta erdaraz nahasian	5,5	3,8	0,0	18,7	2,8	2,8	0,0	28,1
	Beti erdaraz	0,0	0,0	0,0	6,7	0,0	0,0	0,0	4,7

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

⁴ Ikus MUGURUZA, Beñat eta BEREZIARTUA, Garbiñe (2020) "Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa", in CAMINO, I.; ARTIAGOITIA, X.; EPELDE, I. ETA ULIBARRI, K. (arg.), Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre. Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua. 545-564 orr.

Esan bezala, hitanoa etxean jaso duten inkestatuek errazago egiten diete seme-alabei hika, eta hori ez da inkestan zoriz gertatu den fenomeno bat, estatistikoki esanguratsua den joera bat baizik. Joera hau frogatzeko oinarritzko analisi estatistikoak egin dira: aldagaien arteko asoziazioak ezagutzeko, taula gurutzatuak egin dira; asoziaziorik ba al dagoen ikusi dugu Pearson-en chi karratuaren (χ^2) bitartez, eta asoziazio horren sendotasuna ikusi dugu Phi balioak (ϕ) kalkulatu.

		Zuk alabari				Zuk semeari			
		Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ	Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ
Inkestatu emakumezkoa	Amak zuri hika	3	22	0,013	0,240	9	21	0,000	0,357
		12,0%	88,0%			30,0%	70,0%		
	Amak zuri zuka	15	165			4	87		
		1,2%	98,8%			4,4%	95,6%		
Inkestatu gizonezkoa	Amak zuri hika	2	17	0,469	0,077	9	14	0,065	0,191
		10,5%	89,5%			39,1%	60,9%		
	Amak zuri zuka	4	65			14	56		
		5,8%	94,2%			20,0%	80,0%		

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

		Zuk alabari				Zuk semeari			
		Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ	Hika n (%)	Zuka n (%)	χ^2	ϕ
Inkestatu emakumezkoa	Aitak zuri hika	3	22	0,019	0,235	9	20	0,000	0,36
		12,0%	88,0%			31,0%	69,0%		
	Aitak zuri zuka	1	73			4	80		
		1,4%	98,6%			4,8%	95,2%		
Inkestatu gizonezkoa	Aitak zuri hika	5	36	0,018	0,258	20	27	0	0,365
		12,2%	87,8%			42,6%	57,4%		
	Aitak zuri zuka	0	43			5	43		
		0,0%	100,0%			10,4%	89,6%		

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Lehen taulako zenbakiak erakusten dituzte inkestatuen amen hizkuntza-ohituren arabera emaitzak, hau da amaren hizkuntza portaeraren arabera nola hitz egiten zaien seme-alabei. Bigarren taulan, aldiz, aitek inkestatuekiko duten hizkuntza portaera aztertzen da eta horrek seme-alabekiko hizkuntza trataeran duen eragina.

Seme-alabei hika egiteari dagokionez, kopuruak altuagoak dira beti amak edota aitak hika egiten dieten inkestatuen kasuan, zuka egiten dietenen kasuan baino. Alde horiek esanguratsuak diren ala ez jakiteko egin diren analisietan zera ikusi da: emakumezko inkestatuen kasuan, amarengandik zein aitarengandik jasotako hizkuntza-tratamenduak izandako eragina kasu guztietan da estatistikoki esanguratsua alabei eta semeei hika ala zuka egiten dieten determinatzeko garaian. Hau da, inkestatu emakumezkoek gurasoengatik (ama zein aita, biak) jaso duten hizkuntza trataerak eragina du seme-alabei (biei) transmititzen dienean. Asoziazio hori estatistikoki adierazgarria da, nahiz eta semei hika hitz egitearen kasuan asoziazioa intentsuagoa den alaben kasuan baino.

Fokua gurasoen belaunaldian jarriz gero, ikus daiteke ama izan ala aita izan hika egiten diena, ondoren inkestatuak seme-alabekin hika egiteko joera ez dela gehiegi aldatzen. Aldatzen dena da semeei gehiago egiten zaiela hika alabei baino.

Gizonezko inkestatuen kasuan, aldiz, amarengandik zein aitarengandik jasotako hizkuntza-tratamenduak izandako eragina ez da kasu guztietan estatistikoki esanguratsua. Aitarengandik hitanoa jaso izana determinatea da seme-alabei hika ala zuka hitz egiterako orduan, amarengandik hitanoa jaso izana ez. Hau da, inkestatu gizonezkoek aitarengandik jaso duten hizkuntza trataerak eragina du seme-alabei (biei) transmititzen dienean. Asoziazio hori estatistikoki adierazgarria da, nahiz eta, kasu honetan ere, semeei hika hitz egitearen kasuan asoziazioa intentsoagoa den, alaben kasuan baino.

Hirugarren belaunaldiari begiratzen bazaio, tauletan ikus daitekeen bezala, balio altuenak, hots, hika gehien jaso dutenak, profil honetakoak izan dira: aita hika egin dieten gizonezko inkestatuen semeak (bigarren belaunaldi horretakoak diren aiten %42k hika egiten die). Kontrako muturrean leudeke aita zuka egin dieten gizonezko inkestatuen alabak (bigarren belaunaldikoak diren aiten artean inork ez diete egiten hika beren alabei). Azpimarratzekoa da kasu guztietan jaso duela semeak hitanoa sarriago alabak baino.

3.2.3. HITANOAREN ERABILERA (II): LAGUNARTEAN

Hitanoaren erabilerarekin jarraituz, ondorengo atalean jakin nahi izan da zer-nolako hizkuntza trataera erabiltzen duten inkestatuek beren lagunartean: lagun emakumezkoekin egotean, gizonezkoekin, talde handiagoetan eta abar.

Lagun emakumezkoekin zein gizonezkoekin Amasa-Villabonako inkestatuen %80k euskaraz egiten duela esan du eta gainerako %20k euskara eta erdara nahasian edo erdaraz soilik. Hala ere, euskaraz egiten duten %80 horren barruan ezberdintasun handiak nabari dira. Inkestatuen %13,4k bere lagun emakumezkoekin beti edo gehienetan hika erabiltzen duela esan du eta %66,5ek beti edo gehienetan zuka. Gizonezkoei zuzentzerakoan ordea, %32,3k hika egiten du eta %48,8k zuka. Generoak zerikusi handia du portaera honetan; emakumezkoei %13 egiten diete kasu guztietan (inkestatua emakumezkoa edo gizonezkoa izan) eta ehuneko hori mantendu egiten da emakumezkoek gizonezkoei hitz egiterako orduan. Aldiz, gizonezko bat beste gizonezko bati zuzentzean hika erabiltzen da kasuen erdia baino gehiago (56,2%).

Bestetik, adinaren arabera ere antzematen da zuka pixkanaka nagusitzen ari zaiola hikari, batez ere emakumezkoei zuzentzerako orduan. Gaur egun 45 urtetik behera dituzten herritarrak emakumezkoei zuzentzerakoan oso gutxi erabiltzen duten hitanoa, %7tik behera. Gizonezkoei zuzentzerakoan ere hitanoa pisua galtzen ari da, baina oraindik %20tik gora mantentzen da adin gazteetan.

Bukatzeko, Amasa eta Villabona elkarren artean konparatuta, lagun emakumezkoei zuzentzerako orduan hitanoa ehuneko berdinean erabiltzen dela adierazten dute datuek, %13 inguru. Lagun gizonezkoei zuzentzerako orduan Amasan gehiago erabiltzen da hitanoa (%41,3) Villabonan baino (%30,4).

Lagun taldean izaten diren elkarriketei dagokienez, inkestatuen erdiak baino gutxiagok adierazi du beti euskaraz aritzen direla (%43,4k), gehienak euskara eta erdara nahasteko ohitura baitute talde elkarriketetan. Euskaraz bakarrik egiten den kasu horietan, %15,7k hika erabili ohi du eta %27,7k zuka. Hika erabiltzen dutenen ehuneko hori batezbestekoa baino altuagoa da gizonezkoen artean (%27,5), Amasan bizi direnen artean (%27,7) edota gurasoek hika transmititu dioten artean (%30etik gora).

Hitanoa erabiltzen duten inkestatuei galdetu zaie ea nola egiten duten, hau da, ea neskei noka eta mutilei toka egiten dieten. Inkesta bete dutenen hamarretik zazpi (%71,7) generoaren arabera hitanoa egoki erabiltzen duela adierazi du, %12,8k denei toka egiten diela dio, %1ek denei noka eta gainerako %14,4k ez du erantzuten jakin. Hitanoaren erabilera egokiagoa egiten dute emakumezkoek gizonezkoek baino, bereziki, gizonezkoen %17,5ek pertsona guztiei toka egiten diela erantzun baitu eta emakumezkoen artean %3,9k soilik adierazi du denei noka egiten diela. Bizilekuak ere eragin nabarmena du, esaterako, Amasan bizi direnen %85,3k hitanoa era egokian erabiltzen duela dio eta Villabonan bizi direnen artean ehuneko horrek asko egiten du behera (%68,3).

Beste galdera batera pasata, inkestatuen %12,9k dio askotan gertatu zaiola lehenago zuka hitz egiten zuten lagunekin pixkanaka hika hitz egiteko ohitura hartzen joatea. Beste %32,4k noizbait gertatu zaiola erantzun du (guztira %45,3ri askotan edo noizbait gertatu zaio). Horren arrazoi nagusia izan da, galdekatuen esanetan, hika egiten duen jendearekin harremanetan jartzea. Eta bereziki jende hori inguruko herri txikietakoa dela adierazi dute gehienek. Bukatzeko, herri txikietako edo baserri munduko jendearekin hika gehiago hitz egiten ote duten galdetuta, inkestatuen bi herenak (%66,6) baiezkora erantzun du.

Lagun emakumezkoekin

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti edo gehienetan hika	67	13,4
Beti edo gehienetan zuka	335	66,5
Euskaraz eta erdaraz nahasian	98	19,4
Beti erdaraz	4	0,7
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Lagun gizonezkoekin




	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti edo gehienetan hika	163	32,3
Beti edo gehienetan zuka	246	48,8
Euskaraz eta erdaraz nahasian	89	17,6
Beti erdaraz	7	1,3
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Lagunekin taldean zaudenean, nola hitz egiten duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskaraz bakarrik eta denei hika	79	15,7
Euskaraz bakarrik eta denei zuka	140	27,7
Erdaraz eta euskaraz nahasian. Euskaraz egitean hika denei	34	6,7
Erdaraz eta euskaraz nahasian. Euskaraz egitean hika eta zuka	108	21,5
Erdaraz eta euskaraz nahasian. Euskaraz egitean zuka denei	115	22,9
Erdaraz bakarrik	6	1,2
Beste bat	22	4,3
Guztira	504	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Hika egiten duzunean nola aritzen zara?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Neskei noka eta mutilei toka (genero bakoitzari egiteko era)	156	71,7
Denei noka (neskei egiteko era)	2	1,0
Denei toka (mutilei egiteko era)	28	12,8
Beste bat	10	4,4
Ez dakit	22	10,0
Guztira	217	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Gertatu zaizu lehen lagunekin, ezagunekin... zuka hitz egiteko ohitura izatea eta gero hika hitz egiteko ohitura hartzea?**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, askorekin	65	12,9
Bai, batzuekin, baina gehienekin zuka egiten jarraitzen dut	163	32,4
Ez, beti zuka egiten dut	241	47,8
ED/EE	35	6,9
Guztira	504	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Zerk eragin du hika hitz egiten hastea?**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Hika hitz egiten duen jendearekin, lagunekin... hartu-emanetan jartzeak	159	69,7
Hika erabiltzearen kontzientzia hartzeak	42	18,3
Ez dakit	27	12,0
Guztira	228	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Nongoa da hika egitera eragiten zaituen jendea



	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Herri txikietakoa	131	84,0
Hika asko egiten den herriren batekoa	58	37,4
Hika ikastarorik egin ez, baina etxetik edo ingurutik nolabait hika jaso edo entzun, eta hika praktikatzen saiatzen dena	54	34,8
Guztira	156	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Herri txikietako edo baserri mundutik datorren jendearekin hika gehiago hitz egiten al duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	327	66,6
Ez	164	33,4
Guztira	491	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.2.4. HITANOAREN ERABILERA (III): GAILU ELEKTRONIKOEN BIDEZKO KOMUNIKAZIOA

Gailu elektronikoen bidezko ahozko komunikazioari dagokionean, hasteko, aipatzekoa da hitanoaren erabilera altuxeagoa dela idatzizko komunikazioan baino, bai emakumezkoei zein gizonezkoei zuzentzerakoan. Bestetik, ez da aurrez aurreko komunikazioan bezainbeste erabiltzen hitanoa.

Gailu elektronikoen bidez ahoz komunikatzerakoan, emakumezkoei zuzentzerako orduan kasuen %7,3n erabiltzen da hitanoa (%70,6k zuka erabiltzen du) eta erabilera hori bereziki 55 urtetik gorako pertsonak egiten dute. Amasarra izateak eta baserri mundutik gertukoa izateak ere eragin positiboa dute hitanoaren erabileran. Esan bezala %7,3ko hitanoaren erabilera ematen da; datu hau baxuagoa da, aurrez ikusi dugun moduan, aurrez aurre egondakoan lagun emakumezkoei hika egiten zaien kopuruarekin (%13,4 batez beste) edota ahizpari/arrebari egiten zaienarekin (%29,4 batez beste).

Gizonezkoei zuzentzen diren kasuetan, gailu elektronikoen bidez ahoz komunikatzerakoan, %23,8k erabiltzen du hitanoa (%53,9k zuka erabiltzen du) eta erabilera hori bereziki gizonezkoen arteko elkarriketetan izaten da. Kasu honetan ere amasarra izateak eta baserri mundutik gertukoa izateak eragin positiboa dute hitanoaren erabileran. %23,8ko hitanoaren erabilera datu hau ere baxuagoa da aurrez aurre lagun gizonezkoei egiten zaienarekin (%32,3 batez beste) edota anaiari egiten zaienarekin (%41,3 batez beste).

Gailu elektronikoen bidezko idatzizko komunikazioari dagokionez, joerak oso antzekoak dira, bai emakumezkoei zuzentzerako orduan eta baita gizonezkoei jarduterako orduan ere. Desberdintasuna da, aurrerago azaldu bezala, ehuneko guztiak zertxobait baxuagoak direla ahozko komunikazioarekin alderatuta.

Aurrez aurrekoan hika egiten dion pertsona bati idatziz zuka egiten ote dion galdetuta, inkestatuen %15,3 baiezkua erantzun du, eta aipatu den zergatia batez ere idatziz zuka egiteko ohitura izan da. Arrazoen artean aipatu dira, era berean, zukak formaltasuna ematen duela idatzizkoan eta baita hika ondo idazteko segurtasun falta ere.

Alderantziz, aurrez aurrekoan zuka egiten dion pertsona bati idatziz hika egiten ote dion galdetuta, inkestatuen ehuneko berak (%14,8) baiezkua erantzun du. Arrazoi nagusien artean hika errazago egiten zaiola aipatu da gehien-bat, eta baita hika egiteak idatziz lotsarik ez diola ematen ere.

AHOZKO komunikazioa


	Emakumezkoekin		Gizonezkoekin	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti edo gehienetan hika	33	7,3	108	23,8
Beti edo gehienetan zuka	322	70,6	245	53,9
Euskaraz eta erdaraz nahasian	96	21,0	95	21,0
Beti erdaraz	5	1,1	6	1,3
Guztira	455	100,0	454	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

IDATZIZKO komunikazioa

	Emakumezkoekin		Gizonezkoekin	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti edo gehienetan hika	22	5,3	88	20,9
Beti edo gehienetan zuka	299	70,8	239	56,7
Euskaraz eta erdaraz nahasian	94	22,3	88	20,9
Beti erdaraz	7	1,6	7	1,6
Guztira	422	100,0	422	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Gertatzen al zaizu aurrez aurre ZUKA HITZ EGITEN diozun lagunarekin IDATZIZ komunikatzerakoan (WhatsApp, sare sozialak, emailak) HIKA aritzen zarela?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	74	14,8
Ez	397	79,1
ED/EE	30	6,1
Guztira	501	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zergatik gertatzen zaizu? Aurrez aurre ZUKA HITZ EGITEN diozun lagunarekin IDATZIZ HIKA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errazagoa egiten zait	38	51,4
Idatziz ez dit lotsarik ematen	15	20,9
Beste bat	8	10,9
Ez dakit	17	23,2
Guztira	74	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Gertatzen al zaizu aurrez aurre HIKA HITZ EGITEN diozun lagunarekin IDATZIZ komunikatzerakoan (WhatsApp, sare sozialak, emailak) ZUKA aritzen zarela?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	77	15,3
Ez	394	78,6
ED/EE	31	6,1
Guztira	501	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zergatik gertatzen zaizu?

	Maiztasuna
Ohituragatik	32
Idazteko zuka jasoagoa / formalagoa iruditzen zait	8
Hika ondo idaztea / erabiltzearen segurtasun falta	4
Errezagoa zaidalako	3
Egoera edo momentu batzutan bat edo beste ateratzen zait	2
Idatziz hika egitea arrotza egiten zait	2
Zuka hitz egiteko joera dudalako	2
Egunerokotasunean erabiltzen dudana delako	1
Idatziz euskara batua erabiltzen dut normalean eta hika ez zait naturala suertatzen testuinguru horretan	1
Idazterako orduan hikan idazteko ohitura handirik ez dut	1
Konfiantza kontuagatik	1
Nik ez dakidalako hikaz hitz egiten	1
Nire ustez hau gertatzen zait zeren agian aspaldian ez dut hika hitz egin eta zuka ateratzen zait	1
Normalean zuka hitz egiten dugulako sare sozialetan	1
Orain dela gutxi hasi gara koadrilakoak hikaz hitz egiten eta oraindik ez dugu trebetasuna, baina gustatzen zaigu	1
Pentsatu gabe batzutan horrela ateratzen zaidalako	1
Zuka ikasi nuelako	1
Ez dakit	8
Guztira	71

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.3. HITANOA ERABILTZEKO ALDAERAK

3.3.1. HIKA ETA ZUKAREN ARTEKO AUKERAKETA

Ondorengo atalean aztertuko dira inkestatuek izaten dituzten elkarriketa asimetrikoak, hau da, bi pertsonen arteko elkarriketa bat ematen den egoera bat non batek hika egiten duen eta besteak zuka erantzuten duen.

Inkestatuen erdiak baino gehiagok (%52,6) adierazi du gertatu izan zaiola berak zuka egin eta parekoak hika egiten dion elkarriketa bat. Hau gertatzen zaie kasu gehienetan pertsona helduagoekin ari direnean edota errespetua zor diotela iruditzen zaien pertsona batekin ari direnean. Bestelako erantzun batzuk ere eman dituzte, hala nola, lagun konkretu batekin ari direnean, ezagun konkretu batekin edota norberaren gurasoekin. Eta egoera horiek suertatzen direnean nola sentitzen diren galdetutakoan, inkestatuen hamarretik zortzik (%80,0) eroso egoten dela dio.


Alderantzizko egoera ere planteatu zaie inkestatuei, beraiek hika egin eta parekoak zuka hitz egiten dien egoera. Inkestatuen arabera egoera hau aurrekoa baino gutxiagotan gertatzen da (%29,6) eta normalean jende gazteagoarekin, seme-alabekin edota inkestatuari konfiantza transmititzen dioten pertsonekin gertatu ohi da. Nahiz eta egoera hau gutxiagotan gertatu (inkestatuak hika egin eta parekoak zuka erantzutea) gertatzen den kasuetan erosotasun sententzioa ehuneko berdinean ematen da, kasuen %81,9an inkestatua eroso sentitzen da elkarriketa mota horrekin.

Bukatzeko, inkestatuei galdetu zaie normalean zuka egiten duten kasuetan, ea gertatzen den egoera konkreturen bat non hika errazago ateratzen zaien. Bereziki bi erantzun izan dira aipatuenak; batetik, haserretutakoan esaldi solteak botatzerakoan hika errazago ateratzen zaiela adierazi dute inkestatuek (%31,7) eta, bestetik, parrandan dabiltzanean (%30,3). Hirugarren eta laugarren erantzun bezala, animaliei hitz egitean (%18,5) eta haurrei hitz egitean (%14,0) agertu dira.

Pertsonaren batekin gertatzen al zaizu BERAK ZURI HIKA eta ZUK BERARI ZUKA egitea?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	261	52,6
Ez	235	47,4
Guztira	496	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Norekin gertatzen zaizu? BERAK ZURI HIKA eta ZUK BERARI ZUKA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Helduagoekin	117	44,8
Errespetua zor diodala iruditzen zaidan edonorekin	91	34,9
Lagunen batekin	83	31,8
Ezagun batekin	75	28,7
Gurasoekin	45	17,4
Ikaskideren batekin	19	7,5
Beste bat	11	4,1
Guztira	261	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Kasu horretan (pertsonaren batek ZURI HIKA eta ZUK BERARI ZUKA egitean) nola sentitzen zara?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eroso	200	80,0
Deseroso	48	19,0
Beste bat	2	1,0
Guztira	250	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Pertsonaren batekin gertatzen al zaizu BERAK ZURI ZUKA eta ZUK BERARI HIKA egitea?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	145	29,6
Ez	346	70,4
Guztira	492	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Norekin gertatzen zaizu? BERAK ZURI ZUKA eta ZUK BERARI HIKA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Konfiantza dudan edo konfiantza transmititzen didan jendearekin	95	65,3
Gazteagoekin	55	37,6
Seme-alabekin	26	18,0
Ilobekin	21	14,6
Beste bat	15	10,2
Guztira	145	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Kasu horretan (pertsonaren batek ZURI ZUKA eta ZUK BERARI HIKA egitean) nola sentitzen zara?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eroso	114	81,9
Deseroso	22	16,1
Beste bat	3	2,1
Guztira	139	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Berez zuka egiten duzun kasuetan, ondorengo egoera hauetakoren batean egiten al zaizu errazagoa hika egitea?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Haserretutakoan esaldi solteak botatzeko	159	31,7
Parrandan nabilenean	152	30,3
Animaliei hitz egitean	93	18,5
Umeei hitz egitean	70	14,0
Idatziz komunikatzean	65	13,0
Beste bat	43	8,6
Ez dakit	151	30,2
Guztira	501	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.3.2. TOKA ETA NOKAREN ARTEKO AUKERAKETA

Inkestatuek hitanoa erabiltzerako orduan toka eta noka bereizten ote dituzten jakin nahi izan da hurrengo galderen bitartez. Erantzun batzuk aztertuta zalantza sortu da ea inkestatu guztiek ulertu duten toka eta nokaren arteko bereizketa, beraz, erantzunak kontuz interpretatzekoak dira.


Lehenik eta behin, herritarrei galdetu zaie ea noizbait erabili ote duten toka (gizonei hika egiteko modua) emakumezkoei zuzentzerakoan. Amasa-billabonatarren %12,2k baiezkoa erantzun du eta altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%14,6 eta %9,9 hurrenez hurren). Hitanoaren erabilera hau gehienbat lagunen batekin edo familiakide batekin gertatzen zaiela adierazi dute inkestatuek eta hau egiteko arrazoi nagusia 'toka hitz egiteko ohitura' dela diote gehienek eta beste batzuk 'noka ondo ez menperatzea'.

Alderantzizko egoeraren inguruan jakiteko, herritarrei galdetu zaie ea noizbait erabili ote duten noka (emakumeei hika egiteko modua) gizonezkoei zuzentzerakoan. Amasa-billabonatarren %6,0k baiezkoa erantzun du, alderantzizko joeraren erdia. Kasu honetan ere altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%7,1 eta %5,0 hurrenez hurren). Hitanoaren erabilera hau egiteko arrazoi nagusia 'noka hitz egiteko ohitura' dela diote gehienek.

Emakumezko edo neskaren bati toka (gizonezkoei / mutilei hika egiteko modua) egiten al diozu?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	61	12,2
Ez	406	80,9
ED/EE	35	6,9
Guztira	501	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


Nori? Emakumezko bati toka


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Lagunen bati	48	78,4
Familiakoren bati	30	48,8
Ezagunen bati	25	41,3
Lankide bati	13	22,0
Ikaskide bati	6	10,2
Beste bat	2	3,8
Guztira	61	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


Zergatik egiten duzu (emakumezko edo neskaren bati toka)?

	Maiztasuna
Ohituragatik	20
Noka ez dudalako menperatzen	11
Horrela ikasi nuelako	7
Konfiantzagatik	5
Polita delako	2
Erosoa egiten zaitelako	1
Ez dakit	6
Guztira	52


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Gizonezkoren edo mutilen bati noka (emakumezkoei / neskei hika egiteko modua) egiten al diozu?


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	30	6,0
Ez	440	87,8
ED/EE	31	6,2
Guztira	501	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Nori? Gizonezkoren bati noka**


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lagunen bati	23	77,8
Familiakoren bati	19	62,4
Ezagunen bati	12	39,3
Lankide bati	8	27,3
Ikaskide bati	2	5,3
Guztira	30	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Zergatik egiten duzu (gizonezkoren edo mutilen bati noka)?**

	Maiztasuna
Ohituragatik	16
Horrela ikasi nuelako	2
Polita delako	2
Erosoa egiten zaitelako	1
Konfiantzagatik	1
Ez dakit	4
Guztira	26

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.4. HITANOAREN EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA GAUR EGUN

3.4.1. HITANOA ERABILTZEKO ARRAZOIAK

Pertsona bati hika egitea erabakitzeke zein irizpide jarraitzen dituzten galdetu zaie inkestatuei atal honetan eta baita hika gehiago erabiltzea gustatuko litzaien edota zergatik ez duten nahi bezain-beste erabiltzen.

Lehen galderarekin hasita, herritarrentzat hika egitea erabakitzeke irizpide nagusia pareko pertsonarekin konfiantza handia izatea da: inkestatuen ia erdiarentzat (%46,6) nahitaezko baldintza bat da. Bigarren irizpide nagusia pareko pertsonak inkestatuari hika egitea da (%37,6) eta hirugarren eta laugarren irizpideak erantzun kopuru antzekoak jaso dituzte; pareko pertsonak hika egiten jakitea (%29,0) eta pareko pertsona ezaguna izatea (%26,5).

Adina eta generoari lotutako irizpideek pisu gutxiago dute inkestatuentzat. Hala, hika egiteko bosgarren irizpidea izan da pareko pertsona adin berekoa edo gazteagoa izatea (%22,1), bereziki adineko herritarren artean aipamen asko jaso dituen. Bestetik, hika egiteko irizpide bezala parekoa gizonezkoa izatea ere aipatu dute inkestatuen %17,3k, ia aipamen guztiak gizonezkoen aldetik izan dira. Eta bukatzeko, hika egiteko irizpide bezala parekoa emakumezkoa izatea ere aipatu dute inkestatuen %1,7k.

Hurrengo galderan jakin nahi izan da ea inkestatuei gustatuko litzaien hika gehiago hitz egitea. Hamarretik seik (%60,8) baiezkota erantzun du, beste laurden batek (%24,9) ezezkoa eta gainerako %14,3k ez du erantzuten jakin izan. Hika gaur egun baino gehiago erabili nahiko luketenen artean parekotasun handia dago emakumezkoen eta gizonezkoen artean (%59,3 eta %62,4 hurrenez hurren) eta baita amasarren eta billabonatarren artean ere. Aldiz, erantzunak adin-tartearen arabera aztertuta, hika gehiago erabili nahiko lukete 19 eta 35 urte artekoek (%79 inguruk) eta baita 36 eta 45 urte artekoek ere (%70ek). Gainerako adin tarteetan baxuagoa da ehunekoa.


Hitanoa nahi bezainbeste ez erabiltzearen arrazoi nagusia da inkestatuek ez dutela nahi bezain ondo hitz egiten (%37,3). Geroz eta gazteago izan, orduan eta indar handiagoa hartzen du argudio honek. Bigarren arrazoi aipatuena izan da ohiturak aldatzea nekeza egiten dela (%33,9) eta hirugarren arrazoi nagusia gainerako herritarrek ere ez dutela hitanoa erabiltzen (%31,3). Aipatutakoez gain, hitanoa nahi bezainbeste ez erabiltzeke emakumezkoen artean bereziki aipatu diren arrazoiak izan dira ez dakitela hika erabiltzen (%26,7), arraro sentitzen direla hika egitean (%25,2) edota lotsa sentitzen dutela (%12,3). Gizonezkoen artean aldiz, arrazoi pisuzkoagoak izan dira beste pertsona deseroso ez sentiaraztea (%24,7) edota solaskideari errespetu faltarik ez egitea (%17,9).

Bukatzeko, hitanoa gaur egun baino gehiago hitz egin nahi ez dutenei, horren arrazoiaren inguruan galdetu zaie. Erantzunen artean arrazoi nagusia izan da arraro sentitzen direla hika hitz egitean (%27,7), bereziki emakumezkoak eta herritar gazteenak. Bigarren arrazoi izan da ohiturak aldatzea zaila dela (%26,5) eta hirugarrena ez dakielako hika hitz egiten (%23,3), kasu honetan ere, bereziki emakumezko eta gazteen erantzuna izan da.

Pertsona bati hika egitea erabakitzeke zein irizpide jarraitzen dituzu?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Denei hika egiten diet	6	1,2
Beste pertsonarekin konfiantza handia izatea	234	46,6
Beste pertsonak hika egiten jakitea eta niri hika egitea	189	37,6
Beste pertsonak hika egiten jakitea	145	29,0
Beste pertsona ezaguna izatea	133	26,5
Beste pertsona nire adinekoa edo ni baino gazteagoa izatea	111	22,1
Beste pertsona gizonezkoa / mutila izatea	87	17,3
Beste pertsona emakumezkoa / neska izatea	9	1,7
Denei zuka egiten diet	148	29,5
Beste bat	10	1,9
Ez dakit	22	4,4
Guztira	501	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Gustatuko al litzaizuke hika egitea egiten duzuna baino gehiago?**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	305	60,8
Ez	125	24,9
Ez dakit	72	14,3
Guztira	501	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zergatik ez duzu hika hainbeste egiten?


	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Ez dakit nahi bezain ondo egiten	114	37,3
Ohiturak aldatzea nekeza egiten zait	103	33,9
Besteek ez dute egiten	95	31,3
Arraro sentitzen naiz	59	19,5
Beste pertsona deseroso sentitu daitekeela iruditzen zait	55	18,1
Ez dakit hika erabiltzen	49	16,1
Solaskideak errespetu falta bezala har dezakeela iruditzen zait	37	12,1
Lotsa ematen dit	26	8,6
Gurasoei ez zaie/zitzaiei gustatzen	17	5,7
Jendeari itsusia egiten zaiola pentsatzen dut	12	4,0
Beste bat	13	4,4
Ez dakit	11	3,5
Ez dut erantzun nahi	5	1,6
Guztira	305	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

**Zergatik ez duzu hika gehiago hitz egin nahi?**

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Arraro sentitzen naiz	35	27,7
Ohiturak aldatzea nekeza egiten zait	33	26,5
Ez dakit hika erabiltzen	29	23,3
Ez zait gustatzen	27	21,8
Ez dakit nahi bezain ondo egiten	19	15,1
Beste pertsona deseroso sentitu daitekeela iruditzen zait	16	13,0
Solaskideak errespetu falta bezala har dezakeela iruditzen zait	14	11,5
Besteek ez dute egiten	11	8,6
Gurasoei ez zaie/zitzaiei gustatzen	6	5,1
Jendeari itsusia egiten zaiola pentsatzen dut	6	4,6
Lotsa ematen dit	1	1,1
Beste bat	26	20,4
Ez dakit	6	4,8
Ez dut erantzun nahi	2	1,3
Guztira	125	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.4.2. HITANOAREN EGOERA AMASAN

Amasako inkestatuei galdetu zaie ea beren herrian nola ikusten duten hitanoaren eta, zehazki, toka eta nokaren egoera edo erabilera. Guztira 89 herritarrek erantzun dute galdetegia eta hamarretik zazpik (%69,2k) adierazi du toka gehiago entzuten dela noka baino. Beste %21,2k dio noka zein toka biak berdin entzuten direla eta %1,0ek noka gehiago entzuten dela herrian. Hitanoarekin harreman handiena dutenen artean gehiago izan dira toka gehiago entzuten dela erantzun dutenak.

Zehazki nokaren inguruan galdetuta, amasarren %15,9k adierazi du noka asko entzuten dela, beste %47,5ek tarteka entzuten dela eta %25,0k ia ez dela ezer entzuten. Amasan noka gutxi entzuten dela dioten artean, erdiek baino gehiagok aipatu dute (%58,5) belaunaldi berriei transmititu ez zaielako gertatzen dela fenomeno hau. Beste bi arrazoi nagusi ere aipatu dira nokaren presentzia txikia azaltzen dutenak; batetik, inguruan ez dela erabiltzen/entzuten (%48,5ek aipatu du) eta, bestetik, prestigio gutxi izatea, errespetu falta edo maila baxuagokoen hizkuntza trataera gisa ikustea (%24,9).


Tokaren inguruan galdetuta, oster, amasarren hiru laurdenak (%73,4) adierazi du toka asko entzuten dela, beste %16,2k tarteka entzuten dela eta inork ez du aipatu ez dela ezer entzuten. Amasan toka gutxi entzuten dela dioten artean, bi herenek aipatu dute (%67,4) arrazoi nagusia dela inguruan ez dela erabiltzen/entzuten eta bigarren arrazoi bezala belaunaldi berriei transmititu ez zaielako gertatzen dela fenomeno hau (%49,5).

Azkenik, Amasan hitanoaren erabilera bultzatzeak merezi duen galdetuta, herritarren hamarretik zazpik (%69,9k) baiezkota erantzun du. Berezik altua izan da hitanoa bultzatzea erantzun dutenen ehunekoa berau gutxien erabiltzen duten kolektiboen artean: emakumezkoen (%75,6), 55 urtetik beherakoen (%90 inguru) eta gurasoek hika egiten ez dieten herritarren artean.

AMASAN tokaren (gizonezkoei / mutilei hika egiteko moduaren) eta nokaren (emakumezkoei / neskei hika egiteko moduaren) erabilera maila berean daudela uste duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, berdin erabiltzen dira	19	21,2
Ez, toka gehiago entzuten da noka baino	62	69,2
Ez, noka gehiago entzuten da toka baino	1	1,0
Beste bat	0	0,5
Ez dakit	7	8,2
Guztira	89	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zure ustez zein da nokaren (emakumei / neskei hika egiteko moduaren) egoera AMASAN?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Asko entzuten da	14	15,9
Entzuten dut, baina tarteka bakarrik	43	47,5
Ez da ia ezer entzuten	22	25,0
Ez dut behin ere entzun	1	1,2
Beste bat	2	1,8
Ez dakit	8	8,6
Guztira	89	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



AMASAN noka gutxi entzutearen arrazoiak

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Belaunaldi berriei ez transmititu izana, eta, ondorioz, jendeak ez erabiltzen jakitea	39	58,5
Inguruan ez entzutea edota ez erabiltzea	32	48,5
Prestigio gutxi izatea (maila baxuagokoena, lotsagabeena, errespetu falta...)	16	24,9
Itsusia izatea	4	5,9
Beharrezkoa ez izatea	2	2,3
Beste bat	2	2,6
Ez dakit	5	7,8
Guztira	66	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zure ustez zein da tokaren (gizonezkoei / mutilei hika egiteko moduaren) egoera AMASAN?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Asko entzuten da	66	73,4
Entzuten dut, baina tarteka bakarrik	15	16,2
Beste bat	0	,5
Ez dakit	9	9,9
Guztira	89	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


AMASAN toka gutxi entzutearen arrazoiak


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inguruan ez entzutea edota ez erabiltzea	10	67,4
Belaunaldi berriei ez transmititu izana, eta, ondorioz, jendeak ez erabiltzen jakitea	7	49,5
Beharrezkoa ez izatea	4	24,6
Prestigio gutxi izatea (maila baxuagokoena, lotsagabeena, errespetu falta...)	4	24,5
Guztira	15	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


AMASAN hitanoaren erabilera bultzatzea merezi duela iruditzen al zaizu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	63	69,9
Ez	16	18,3
Beste bat	1	1,0
Ez dakit	10	10,8
Guztira	89	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.4.3. HITANOAREN EGOERA VILLABONAN

Amasarrei egin bezala, billabonatarrei ere galdetu zaie ea beren herrian nola ikusten duten hitanoaren eta, zehazki, toka eta nokaren egoera edo erabilera. Inkestatuen bi herenek (%64,4) adierazi du toka gehiago entzuten dela noka baino. Beste %7,8k dio noka zein toka biak berdin entzuten direla eta %3,2k noka gehiago entzuten dela herrian. Amasan bezalaxe, hitanoarekin harreman handiena dutenen artean gehiago izan dira toka gehiago entzuten dela erantzun dutenak.


Zehazki nokaren inguruan galdetuta, billabonatarren %1,2k adierazi du noka asko entzuten dela, beste %27,4k tarteka entzuten dela eta %55,6k ia ez dela ezer entzuten edo ez dutela inoiz entzun. Villabonan noka gutxi entzuten dela dioten artean, hiru laurdenek baino gehiagok aipatu dute (%76,8) belaunaldi berriei transmititu ez zaielako gertatzen dela fenomeno hau. Beste bi arrazoi nagusi ere aipatu dira nokaren presentzia txikia azaltzen dutenak, Amasan gertatu bezala; batetik, inguruan ez dela erabiltzen/entzuten (%55,8k aipatu du) eta, bestetik, prestigio gutxi izatea, errespetu falta edo maila baxuagokoen hizkuntza trataera (%15,3).

Tokaren inguruan galdetuta, aldiz, billabonatarren ia bostetik batek (%18,1) adierazi du toka asko entzuten dela, beste %54,4k tarteka entzuten dela eta %12,3k ez dela ezer edo ia ezer entzuten. Villabonan toka gutxi entzuten dela dioten artean, hiru laurdenak aipatu du (%72,9) belaunaldi berriei transmititu ez izana dela arrazoi nagusia. Eta ondoren aipatzen dira inguruan ez dela erabiltzen/entzuten (%54,0) eta hizkuntza trataera hau beharrezkoa ez izatea (%12,4). Azkenik, Villabonan hitanoaren erabilera bultzatzeak merezi duen galdetuta, herritarren hiru laurdenak (%75,8) baiezkota erantzun du.

VILLABONAN toka (gizonezkoei / mutilei hika egiteko moduaren) eta nokaren (emakumezkoei / neskei hika egiteko moduaren) erabilera maila berean daudela uste duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, berdin erabiltzen dira	32	7,8
Ez, toka gehiago entzuten da noka baino	265	64,4
Ez, noka gehiago entzuten da toka baino	13	3,2
Beste bat	3	,6
Ez dakit	99	24,0
Guztira	412	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zure ustez zein da nokaren (emakumei / neskei hika egiteko moduaren) egoera VILLABONAN?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Asko entzuten da	5	1,2
Entzuten dut, baina tarteka bakarrik	113	27,4
Ez da ia ezer entzuten	209	50,7
Ez dut behin ere entzun	20	4,9
Beste bat	1	,3
ED/EE	63	15,4
Guztira	412	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



VILLABONAN noka gutxi entzutearen arrazoiak

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Belaunaldi berriei ez transmititu izana, eta, ondorioz, jendeak ez erabiltzen jakitea	262	76,8
Inguruan ez entzutea edota ez erabiltzea	191	55,8
Prestigio gutxi izatea (maila baxuagokoena, lotsagabeena, errespetu falta...)	52	15,3
Beharrezkoa ez izatea	34	9,9
Itsusia izatea	4	1,2
Beste bat	1	,4
Ez dakit	20	5,8
Guztira	342	100,0


Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



Zure ustez zein da tokaren (gizonezkoei / mutilei hika egiteko moduaren) egoera VILLABONAN?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Asko entzuten da	75	18,1
Entzuten dut, baina tarteka bakarrik	224	54,4
Ez da ia ezer entzuten	45	10,9
Ez dut behin ere entzun	6	1,4
Beste bat	1	,3
ED/EE	61	14,8
Guztira	412	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


VILLABONAN toka gutxi entzutearen arrazoiak


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Belaunaldi berriei ez transmititu izana, eta, ondorioz, jendeak ez erabiltzen jakitea	200	72,9
Inguruan ez entzutea edota ez erabiltzea	149	54,0
Beharrezkoa ez izatea	34	12,4
Prestigio gutxi izatea (maila baxuagokoena, lotsagabeena, errespetu falta...)	27	9,7
Itsusia izatea	3	1,3
Beste bat	1	,4
Ez dakit	19	6,9
Guztira	275	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"


VILLABONAN hitanoaren erabilera bultzatzea merezi duela iruditzen al zaizu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	312	75,8
Ez	27	6,5
Beste bat	5	1,3
Ez dakit	68	16,4
Guztira	412	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.5. HITANOAREN ERABILERA BULTZATZEKO PROPOSAMENAK ETA PARTE HARTZEKO PRESTUTASUNA

Azkenik, ikerketan parte hartu duten herritarrei zuzenean galdetu zaie beren iritziz zein izan daitezkeen ideia edo proposamen interesgarriak hitanoaren erabilera bultzatzeko. Segidan jasotzen dira erantzunak, adierazi diren modu zehatza mantenduta:

Zer egin daitekeela iruditzen zaizu hitanoaren erabilera bultzatzeko?

	Maiztasuna
- Adibidez euskaraldiaren antzeko ekintzak egitea.	1
- Ahal den guztietan erabili lotsarik gabe.	1
- Ahalik eta gehien hitz egin. Mintza praktika taldeak. Komunikabideetan presentzia gehiago. Herriko jende ezagunak hika hitz egitea. Kartelak, kalean, komertzioetan, tabernetan...hikaz egotea.	1
- Aiurrin sustatu, kurtsoak antolatu, hitanorako mintzalagun praktikak, lagunarteko ekintzak antolatu, belaunaldi ezberdinen artean zubiak eraiki.	1
- Alde batetik prestigioa eman, bestetik, erabilerarako guneak sortu. Ez bada bultzatzen, galduko da.	1
- Amasan oso zabaldua dago, beraz nire iritziz ez dago lan handirik egin beharrik.	1
- Aurrena ondo erabiltzen ikasi.	1
- Ba agian jokuen bidez erabiltzea kalean umeen artean.	1
- Ba besterik gabe lotsarik gabe praktikatu.	1
- Balioan jarri. Nola erabili erakutsi. Dakitenek erabili.	1
- Baserritarrekin elkarrizketak egitea, Euskal Herriko ohiturak azaltzen dituen txangoren bat egitea, hika erabiltzearen garrantzia azaltzea...	1
- Batetik, hikaren erabileran formatu eta, bestetik, erabilerarako kanpainak, guneak... sortu.	1
- Belaunaldi berriei erakustea	3
- Belaunaldi berriei erakutsi eta ikastetxe nahiz hezkuntza ez arautuan ere irakasle/ikasle artean hitanoa erabili.	1
- Belaunaldi berriei hikaren erabilera erakustea eta bultzatzea.	1
- Belaunaldi berriei ohitura hori ezartzea, ikastolan zein aisialdian.	1
- Belaunaldi berriei transmititu, hezkuntzaren bidez, etxean etab. Ohitura berriak.	1
- Belaunaldiz belaunaldi transmititu.	2
- Berreskuratzeko, euskara batzordetik-edo kanpainatxo batzuk egin. Ea horrela gehiago animatzen garen.	1
- Bideo eredugarri motzak zabaldu. Txartelak esaldiekin jarri.	1
- Bultzatu dakienei horrela egiten eta ez dakigunok ikasi behar dugu.	1
- Bultzatu.	1
- Dakien jendeak ikasi nahi duenari erakustea, ez galtzeko.	1
- Dakienak eta nahi duenak erabil dezala.	1
- Dakienak hitz egin dezala.	1
- Dakienak hitz egiten segi dezala.	1
- Dakigunok behintzat erabiltzea, ez dakitenekin ere.	1
- Dakigunok erabili eta ondorengoei transmititu.	1

- Dakigunok erabiltzea.	1
- Dakigunok erabiltzen ohitzea.	1
- Dakigunok, beldurrik gabe erabili, zabaldu dadin.	1
- Dakitenak erabiltzea.	1
- Dakitenak erabiltzen hasi...	1
- Dakitenak erabiltzera animatuko nituzke. Udaletxeko euskara zerbitzutik ikasteko elkarrizketak lantzeko taldeak sor daitezke mintzalagunen antzera.	1
- Dakitenak gehiago erabili.	1
- Dakitenak hitz egiten, ez dakienei erakustea.	1
- Dakitenak lotsa galdu eta erabiltzea.	1
- Dakitenek erabiltzea eta hain ondo ez dakitenei parrik ez egitea, klaseak antolatu daitezke....	1
- Dakitenek erakutsi eta hain ondo ez dakitenei zuzendu. Jendea animatu hitanoa erabiltzera.	1
- Dakitenek hitz egin.	1
- Dakitenek hizketan segi dezatela hikaz.	1
- Dendadariak ta tabernariak ere erabiltzea.	1
- Denok gure partetik jarri eta egiten saiatu.	1
- Donostian Mintzodromoa egiten den bezala, Hikadromoa edo antzeko zerbitu egin daiteke. Mintzalagunaren antzeko ekimen bat egin daiteke Hikalaguna edo Hikakuadrila (hilean maiztasun jakin batekin elkartuta), jendearen artean Hika erabiltzeko ohitura areagotzeko.	1
- Ekintzak antolatu.	1
- Ekintzak egitea.	1
- Ekintzetako leloak hitanoan jarri. Umeei baserri giroko ereduak erakutsi. Txikitatik erakutsi umeei hika noiz, nori eta nola egin errespetua galdu gabe (zaharrei, ezezagunei, medikuari, etab.). Hika dakitenek, sarriago erabili. Hika naturaltasunez erabili eskolan, etxean edota lanean, ez dakitenei pixkanaka barneratu zatzaizen.	1
- Emakumeek beraien artean erabiltzea funtsezkoa iruditzen zait. Horrela noka ez dakiten gizonezkoek ere errazago izango dute hastea. Badirudielako emakume bati noka hitz egiten hastea zailagoa dela gizonezko bati toka hitz egitea baino.	1
- Emakumezkoak elkarrekin noka egitera animatzea.	1
- Erabilera errazteko ezagutzen pausoak eman beharko lirateke, kurtsilloak, mintzalagunak, topaketak...	1
- Erabili nahi dutenen artean topaketak antolatu.	1
- Erabili.	4
- Erabiltzea bultzatu eta ikasteko aukera eman.	1
- Erabiltzea garrantzitsua iruditzen zait.	1
- Erabiltzen dugunok ahal eta gehien erabiltzea.	1
- Erabiltzen eta ikasten hasi.	1
- Erabiltzen hasi, belaunaldi berrietako jendeari arraroa ez egiteko.	1
- Erabiltzen hasi, erakutsi, ikasi eta transmititu.	1
- Erakutsi eta garrantzia eman.	1
- Erakutsi eta hitz egin.	1
- Erakutsi eta ikasteko errezak diren edukiak zabaldu (testu laburrak, bideoak, herriko zaharrei elkarrizketak...). Transmititu ez delako ez dakigu hikaz orokorrean, nire ikuspuntuaren arabera, baina askok gustura erabiliko genuke gehiago.	1
- Erakutsi.	7
- Eskola eta ikastoletan hitanoa erabiltzea bultzatu.	1
- Eskolan erakutsi.	1
- Eskolan gehiago bultzatu.	1

- Eskolan gehiago irakatsi eta jendea gehiago kontzientziatu.	1
- Eskolan gehiago landu.	1
- Eskolan hika hitz egiten erakutsi.	1
- Eskolatan erabili normaltasunez, eta lagun giroan bultzatu.	1
- Eskoletan bultzatu.	3
- Eskoletan erakutsi. Familiartean erabili egunero.	1
- Eskoletan lantzen hastea garrantzitsua litzateke, ez jakitea aitzaki izan ez dadin.	1
- Eskoletatik bultzatu eta gurasoek gaztetxoei hitz egin.	1
- Etxean erabiltzen hasi eta eskolan hitanoa irakatsi.	1
- Etxetik hasi behar da, ondotengoei hikaz egiten.	1
- Etxetik hasi, ikastetxeetan.	1
- Euskara garrantzitsua da nire bizitzan, baina bakoitzak nahi moduan hitz egin dezala, ez diot garrantzi handia emango honi, baina ulertzen dut beste pertsona batzuek ematea izan ere kultura da aurrera bultzatzen gaituena, dena jakin behar da baino mesedez ez behartu ezer egitera mila esker.	1
- Euskaraldian bezala txapa batzuk sortu, hitanoa erabiltzen dutenentzat bat eta erabili edo ikasi nahi dutenentzat beste bat. Modu honetan mintzalagunarekin hitanoa erabil dezakezula jakingo duzu, agian ohituraz zuka hitz egiten diozu eta modu honetan ohitura aldatzeko aukera izango da. Honetaz gain, kalean gehiago entzungo da eta jendeak ikasteko aukera gehiago edo interes gehiago izan dezake.	1
- Euskaraldiaren moduko jardueraren bat proposatu.	1
- Euskararen erabilera bultzatuko nuke orokorrean, ez hikarena.	1
- Euskararen erabiltzea normalizatzearekin batera, hitanoz erraztasuna dutenek gehiago erabiltzea.	1
- Euskaraz ondo hitz egin.	1
- Euskera maila hobetu. Geroz eta okerrago egiten dugu euskeraz eta nire ustez, hika erabiltzeko lehenengo zuka ongi egin behar da.	1
- Ez dakit	47
- Ez dakit zer esan, dakigunok ez dugu gehiegi erabiltzen eta atzetik datozenak ez dute ikasten. Eskolan ikasi behar litzateke baina kalerako ere zerbait egin behar da, kalean berriro ere erabiltzen has dadin.	1
- Ez dakit. Igoal pixka bat dakigunak erabiltzea.	1
- Ezagutza zabaltzea.	1
- Familian hasita.	1
- Formakuntza saioak antolatu, erabilera sustatu.	1
- Formazioa (ikastaroak, mintzapraktikak) hikaren jatorria azaltzea hikari bakarrik lotutako kultura ekitaldiak (antzerki obrak, literatura, bertsoak) hikaren mitoak gezurtatzea herrian hikaz gehiago egiteko baliabideak ematea (zerbitzuak) ez litzateke ideia txarra hikaldia herrian egitea.	1
- Garrantzia eman. Ez da baserritarrena bakarrik hitanoa. Eskolatan ere erakutsi beharko lukete orain erakusten dutena baino gehiago.	1
- Gazteei erakutsi eta giroa sortu: ikastetxeetan eta haurren eskolaz kanpoko saioetan bultzatu, esaterako.	1
- Gazteei erakutsi.	2
- Gazteei interesa pizteko ekintzak (adb: laburmetrail txapelketa), helduenek erabil dezaten bultzatzeko ekintzak (tradizioaren garrantzia azpimarratuz batez ere)...	1
- Gazteen artean bultzatu	9
- Gazteen artean hau bultzatzeko teknikak ematea.	1
- Gazteen artean hika erabiltzen dugu, atzetik datozen generazioei hika erakustea izango litzateke egokiena.	1
- Gaztetatik jendea ohitu.	1
- Gaztetxoenei gehiago entzuteko zerbait egitea.	1
- Gehiago erabili eta ondorengoei hitanoa erabiltzen erakutsi.	1
- Gehiago erakustea.	1

- Gehiago hitz egin.	10
- Gehiago hitz egitea, eta belaunaldi berriei trasnmititzea.	1
- Gehiago zabaldu.	1
- Gehio erabiltzea eta tradizioa jarraitzea, tradizioa ez galtzea eta ondorengoei ematea eta ez galtzea.	1
- Generazio gazteei erakutsi.	1
- Gure artean gehiago erabiltzen hasi.	1
- Gure hizkuntzaren, euskararen zati dela jakinik, eta galdu ez dadin, hitanoa praktikatzeko plataformak, egoerak, ikastaroak bultzatzea.	1
- Hasteko euskara maila sustatu ostean euskararen aberastasunera jotzeko. Aditzetan molde errazetara jo izan ohi du gizarteak, sinplifikatzera berezko aditza beharrean. Nahikoa lan hitanoa barneratzeko, baina erronka polita aldi berean. Animo eta ea proiektu honek bidea egin dezakeen.	1
- Hurrei eskolan gehiago erakutsi.	1
- Helduak gazteei modu hontan hitz egiten hastea.	1
- Herritarren arteko konfidantza sendotu, behin konfiantza edukita bakoitzak ikus dezala hika egin edo ez.	1
- Hezkuntza sisteman hikaren presentzia areagotzea transmisioa galdu ez dadin...	1
- Hezkuntzan garrantzia gehiago ematea.	1
- Hika erakustea.	2
- Hika gehiago erakutsi eta dakitenak hika hitz egin, zeren oain adibidez kaletik entzuten dizue hika hitz egiten eta pixka bat arraro begiratzen dizue.	1
- Hika gehiago hitz egin.	1
- Hika ikastaroak prestatu jendeak interesa badu.	1
- Hika ikasteko ekitaldi batzuk.	1
- Hikari buruzko hitzaldiak egitea adibidez.	1
- Hitanoa baino garrantzitsuagoa iruditzen zait jendeak euskaraz egitea. Gaur egun Billanonan euskararen erabilera oso txikia da eta hau garrantzitsuagoa dela uste dut.	1
- Hitanoa dakitenek etengabe erabiltzea. Hartara, ez dakigunok edo menperatzen ez dugunok belarria egingo zaizu eta errazago barneratuko dugu.	1
- Hitanoa erabiltzea bultzatuko duten zenbait mekanismoa martxan jartzea, dakitenei hika hitz egin dezaten animatzea.	1
- Hitanoa erabiltzeko kanpainaren bat edo abian jarri.	1
- Hitanoa erabiltzen duen jendearekin, hala hitz egiten saiatu. Eta hitanoa dakienak, lagun diezaiola ikasten ari denari, harekin erabiltzen duenean.	1
- Hitanoa gehiago erabili.	1
- Hitanoa ikastaroak.	1
- Hitanoa naturalizatzea.	1
- Hitanoa praktikatzeko jarduerak bultzatzea (udaletxetik, eskolatan...).	1
- Hitanoaren erabilera bultzatzeko, jendea animatu beharko litzatekeela iruditzen zait.	1
- Hitz egin gehiago eta esaldiak nola erabili behar diren informatu.	1
- Hitz egin.	9
- Hitz egiten dugunok jarraitu hitz egiten.	1
- Hitzaldiak, ikastaroak, jendea motibatu (gazteak), txikitatik irakatsi...	1
- Hitzaldiak, topaketak... Antolatu.	1
- Hitzaldiren bat antolatu hitanoaren erabilera eta ondarea balioan jarriko duena.	1
- Hori bultzatzeko ekintzak egitea jendea kontzientziatzeko.	1
- Hori hausnarketa sakona da, erantzun sendo bat emateko denbora behar da eta oraintxe bertan ez daukat, sentitzet dut.	1
- Horrekako iniziatibak martxan jarri eta jarraipena ematea.	1

- Horren aldeko arrazoiak eman eta zabaldu, dokumentalen bat zabaldu...	1
- Hurrengo generazioei transmititzea.	1
- Idatzizko komunikabiddetan ere idaztea.	1
- Ikasi entzunez eta lotsa galdu.	1
- Ikasi erabiltzen.	1
- Ikasi eta dakigunok erabili.	2
- Ikasi eta saiatu gehiago erabiltzen.	1
- Ikasketetan bultzatuta.	1
- Ikastaroak antolatu.	8
- Ikastaroak antolatzea ez dakitenek ikasteko eta dakitenek ohitura ez galtzeko.	1
- Ikastaroak eman. Euskaldun berriak ganerok ez dakigu hika erabiltzen.	1
- Ikastaroak, dakigunok Villabonako hitanoa ikasteko.	1
- Ikastaroak, ekitaldiak, jokoz bitarteko tailerrak, mintza praktika taldeak, udalaren egitasmoak...	1
- Ikastaroak, mintzalagun taldeak, hika betidanik erabiltzen duten euskaldun zaharrekin bildu eta hitz egin... aisialdiko ekintzetan hika egin, hezkuntza programan sartu, euskaraldia bezalako bat, baino hikaldia edo egitea...	1
- Ikastaroak. Kontzientziatu.	1
- Ikastaroren bat egitea.	1
- Ikastetxeetako lanketatik abiatu.	1
- Ikastetxeetan aditzak baino zerbait gehiago erakustea, hau da erabilera.	1
- Ikastetxeetan bultzatzea. Deklinabideetat aparte, hitz egitea.	1
- Ikastetxeetan gehiago bultzatzea hitanoaren erabilera.	1
- Ikastetxeetan gehiago lantzea normalizatu ahal izateko.	1
- Ikastetxeetan hikaz hitz egiten erakustea.	2
- Ikastetxeetan irakatsi eta erabilera bultzatu.	3
- Ikastolan euskara hitz egiteko modu hori erakustea.	1
- Ikastolan zein eskolan gehiago erakutsi.	1
- Ikastolan/eskolan erakutsi.	1
- Ikastoletan erakustea, ez uztea eta familietan ohitura mantentzea.	1
- Ikastoletan erakutsi.	1
- Ikastoletan ere landu.	1
- Ikastoletan eta aisialdi taldeetan gehiago landu.	1
- Ikastoletan hika ere erakustea.	1
- Ikastoletan pixka bat hitz egitea.	1
- Informazio edota herriko bandoak hitanoz idatzi.	1
- Informazioa eta agian tailerrak egin.	1
- Interesa duen jendeari aukera eman oinarri minimo batzuk jaso eta trebezia jartzeko hartzeko taldean solasaldian aritu edozein dela aitzakia ere.	1
- Interesatuentzako ikastaroren bat...	1
- Irakaskuntzan irakatsi eta gurasoei ere balore bezala helarazi.	1
- Jende askori hitanoan hitz egin.	1
- Jende gehiagok erabiltzea.	1

- Jendea animatu eta ez dakitenei erakutsi.	1
- Jendea animatzeko kanpainak, formazioa ez dakitenentzat.	1
- Jendea kontzientziatu.	1
- Jendeak euskara gehiago erabili nahi izatea eta garai bateko hitz egiteko moduari indar eman nahi izatea.	1
- Jendeak hika egiten ikasi beharko luke hasteko. Ondoren ikastolan eta horrelako eraikinetan gehiago hitz egitea proposatuko nuke.	1
- Jendeak hikaz hitz egiten jakin egin beharko luke hobeto.	1
- Jendeak ikastea.	1
- Jendearekin hitz egin, ohitura hartzeko.	1
- Jendeari erakutsi.	5
- Jendeari gehiago hitz eginarazi.	1
- Jendeari hitz egitea bultzatzea.	1
- Kaleetan gehiago hitz egiten saiatzea, kartelak hikaz jartzea...	1
- Kaleetan jartzen diren panfletoak hikaz ere ikustea, esaterako, edota tabernetetan.	1
- Kaletik gehiago entzutea.	1
- Kanpaina bereziren bat. Sare sozialak.	1
- Kasu gehienetan ikasi egin beharko litzake.	1
- Komunikabideek erabiltzen duten hizkuntza hitanoa balitz, normalduko litzateke, hots, Aiurri, Udaleko kultur ekitaldien paperetan, etab...	1
- Komunikazioa landu eta jendea erabiltzera animatu. Baita erakutsi ere.	1
- Kontzientziatzea eta beldurrik gabe behin eta berriz erabiltzea.	1
- Kurtso bat praktikatzeko.	2
- Lagunen artean gehiago erabili.	1
- Lehen egiten ziren bezalako bilera/jarduerak bultzatu.	1
- Lehenbizi ikastaroren batera apuntatu.	1
- Lehenengo belaunaldi berriei irakatsi. Hitz solteak erabiltzen dakit nik, eta hori gertukoren bati entzun diodalako, beraz, transmisioaren ondoren etorriko litzateke erabilera handitzea.	1
- Lehenengo hitza beti hitanoz egitea edozeinen aurrean.	1
- Lehenik eta behin, gazteei erakutsi. Behin hori eginda, lotsa kendu.	1
- Leku desberdinetan honen erabilera gehiago erakutsi. Klean karteletan...	1
- Lotsa galdu, ikasi, entzun eta erabili.	1
- Mintza praktika modukoak antolatu.	2
- Mintzapraktikak, pelikulak eta espektakuloak hitanoz, belarria egiteko.	1
- Nahi duenak erabili.	1
- Natural irteten ez bada, ez da irtengo. Euskarak berak baditu nahiko arazo. Zerbait proposatzekotan mintza praktikak izan daitezke aukera bat.	1
- Naturaltasun handiagoa ematea hika hitz egiteari.	1
- Nik toka eta noka erraz egin ditzazket. Neskei noka egitea kosta egiten zait, beraiek niri eginda ere. Guraso eta osabei ere inoiz ez diet toka egin (errespetuagatik).	1
- Nik uste det billabonan ez dela asko erabiliko.	1
- Nik uste dinat eskoleetatik landu beharrekoa dela.	1
- Nik uste dut, ez dela beharrezkoa. Euskera batuan hitz egin beharko genukeela diot. Niri ez zait hitanoa gustatzen.	1
- Nire kasuan hika ez dakit erabiltzen.	1
- Nire kasuan, konfiantza asko behar dut pertsona batekin hika hitz egiteko... beraz ez naiz egokiena galdera hau erantzuteko. Sentitzen dut.	1


- Nire ustez, hitanoz hitz egiten erreztasuna dutenek, erabilera zabaltzeko nahiz eta parean duten edo dituzten pertsonak ez jakin horretan.	1
- Niri asko gustatze zait hitanoa, eta gehiago entzutea gustatuko litzaidake. Baserriko aitonak eta nire osobek erabiltzen dute, niri ere gustatuko litzaidake ongi jakitea baina ez dakit erabiltzen beraz beti zuka egiten dut. Hitanoa bultzatzeko gazteok (gehien bat) ikasi eta erabili egin beharko genuke. Horretarako lehen pausoa ikastea izango litzateke, nola? Klase moduko batzuk prestatuta nahi dutenentzat adibidez. Kursillo moduko bat edo... Polita izango litzateke.	1
- Noka bultzatzea eta indartzea da gakoa.	1
- Noka erakutsi.	1
- Normalizatu eta ez dakitenei erakutsi eta ikasteko aukera eman.	2
- Normalizatuaz, errespetu falta edukitzea ez dela azaldu eta familian belaunaldiz belaunaldi pasatzen saiatzea. Euskara ere gehiago bultzatzea eta baserritarrentzat bakarrik ez dela azaltzea.	1
- Ohiturak aldatu eta saiatu gehiago hitz egiten.	1
- Ohiturak aldatu.	1
- Ohiturak aldatzea oso zaila iruditzen zait.	1
- Pedagogia.	1
- Pintxo pote gehiago jarri muturra berotzeko eta jendea gehiago soltatzeko.	1
- Prestakuntza eskaini.	1
- Publikoak diren pertsonen gehiago erabiltzea. Udalen idatzietan ere erabiltzea.	1
- Publizitatea.	1
- Solasaldia antolatu.	1
- Taldeak sortu hitz egiteko.	2
- Tallerrak egin.	2
- Topaketak.	1
- Transmisioa (suposatzen dut).	1
- Txikitatik etxean eta ikastolan umeei irakatsi eta erabili.	1
- Txikitatik hitanoa hizkuntza moduan irakastea.	1
- Udaletik noizbehinka komiki bat hikaz etxeetara bidaltzea.	1
- Zerbait dakigunak ausartzea jende gehiagokin hitanoaz mintzatzen, eta prestijio kanpainak egitea.	1
Guztira	347

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

Zure esku legokeen zerbait egiteko prest egongo al zinateke?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	106	21,3
Bai, lan gehiegi eskatuko ez balit	202	40,5
Ez	110	22,0
Ez dakit	81	16,2
Guztira	499	100,0

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"



3.6. AMAIERAKO OHARRAK

Gai honen inguruan iritziren bat eman edo ekarpenen bat egin nahi izango bazenu, gustora jasoko genuke hemen.

	Maiztasuna
- Altxor bat da hika orokorrean. Hikaren erabilera tamalgarria da Villabonan, bereziki emakumeen kasuan.	1
- Altxor bat dela iruditzen zait, ezagutza eta erabilera sustatzeko egiten den guztiarekin ados nago.	1
- Amasan toka oso zabaldua dagoen arren, noka hutsune handi bat dago gazteon artean. Hala ere, hori konpontzea ez dakit erraza den, jendeari, gehienbat emakume gazteei, nire ustez lotsa ematen baitie. Horretaz gain, noka etxean jaso ez baduzu gaur egun ikasteko ere zailtasunak daude bere erabilpen baxua dela eta.	1
- Animo!!	3
- Askok gustatuko litzaidake hitanoaren inguruan zerbait egitea, nola hitz egin eta erabili ikasteko. Ni prest egongo nintzateke.	1
- Astuna egin zait galdeketa.	1
- Aupa zuek!!	1
- Baserri guneeetan erabili izan da gehien hika eta herri guneeetara zabaltzea gustatuko litzaidake, horixe da gakoa.	1
- Belaunaldi erdaldunak ezagutarazi, euskara ezagutarazi eta partekatu egitasmo xume bitartez, gure altxorra erakutsi eta erdaldunena ere ikustarazi. Amasa Villabonako edo Aiztondoko euskara eguna sortu.	1
- Belaunaldiz belaunaldi transmititzea.	1
- Besterik gabe, gai honen inguruko galdetegi hau interesgarria eta hizkuntza egoera nola dagoen ikusteko ideia ona iruditzen zait.	1
- Bueno, nik egiten dudana bezala egingo balute denak, euskararen etorkizuna salbu egongo litzateke.	1
- Dakigunok gehiago hitz egin beharko genuke.	1
- Ekimen polita da, eta aberasgarria litzateke aurrera egitea.	1
- Emakumeek beraien artean lotsa galtzea funtsezkoa iruditzen zait.	1
- Erronka polita mahai gainean jarri berri duzue, ea lortzen den hitanoa eta euskara bultzatzea gure herrian!	1
- Esandakoa, gustatuko litzaidake hika berreskuratu eta erabilera zabaltzea. Belaunaldi berriengan dago giltza.	1
- Eskerrik asko.	7
- Eskerrikasko ekimen honengatik! Ez dakit zerbait hobetzea lortuko den, baina, honek asko lagundu dezake! Triste jartzen nau hika erabiltzen ez jakiteak eta hurrengo belaunaldira ez iristeak. Gogoz zer gertatzen den ikusi eta parte hartzeko! Mila esker!!	1
- Eskolatan garrantzia eman.	1
- Etxean hikaren erabilera handitzen saiatuko naiz.	1
- Euskara bizi.	1
- Euskaraz gehiago hitz egitea ikastolan, kaleran, familian...	1
- Ez dut ezer esatekorik, denbora faltagatik ez dut hurrengo fasera pasatzeko telefonorik jarri.	1
- Gai ona.	1
- Gazte gutxi dakiela noka eta horregatik dela erabilera urriagoa nesken artean eta neskekiko.	1
- Gazteen artean gehiago entzuten da.	1
- Gazteagoak badaude lanerako.	1
- Gehiago hitz egitea hobeagoa izango zen.	1
- Guk gurasoei ez genien inoiz hika egiten. Errespetu falta zen. Ezta apaizei ere. Beti berorika. Ta irakasleei ta medikuei zer esanik ez.	1

- Gure familian aitonak eta amonak erabiltzen zuten eta dute beren lagun, anai arreba eta seme alabekin, baina ez ilobekin. Gure gurasoek ez dute erabili gurekin eta ez dugu ohiturarik hartu/praktikatu.	1
- Gustokoa izan det inkesta.	1
- Gustura berreskuratuko nuke gure aiton-amonek hikaz hitz egiteko duten ohitura gazteen artean ere entzutea.	1
- Gutxien gustatzen zaidana, emakumeei tokan egitea da. Jendeak ez daki edo ez du desberdintzen mutil eta neskei desberdin egiten zaiela. Gaizki egitea baino hobe zuka egitea.	1
- Hika asko gustatze zait, gertutasuna, konfidantza transmititzen dit. Baina ez diot edonori onartzen.	1
- Hika euskalki politenetakoa iruditze zait. Nik behintzat etxean hitz egiten dut eta oso oso eroso sentitzen naiz horrela hitz egiten. Familian hitz egiteko ere modu egokiena da nire ustetan. Amaitzeko iruditzen zait jende gutxiegi dakiela hikaz hitz egiten, gehiagok jakin beharko lukete.	1
- Hikaren erabilera ohikoa izatea, oso aberasgarria iruditzen zait herri euskaldun batentzat. Askotan jartzen naiz pentsatzen, pena ematen didala kalean euskara gutxiago entzutea, eta zer esanik ez hika. Dagoeneko herritar gutxi garela uste dut hika eta zuka ongi erabiltzen dakigunok.	1
- Hitanoa ez galtzea oso garrantzitsua iruditzen zait, horregatik zerbait egin behar dela deritzot.	1
- Hitanoari duen garrantzia emateko garaia da. Eskerrik asko.	1
- Hitzaldi gehiago egitea ondo egongo zen.	1
- Ikerketak pena merezi duela pentsatzen dut.	1
- Interesgarria dela iruditzen zait.	2
- Interesgarria iruditzen zait. Hika galtzen ari dela ikusten dut.	1
- Lagun asko ditut mutillak eta beraien artean hika hitz egiten dute baina nirekin hitz egitean zuka egiten didate beti, heziketa zikloetan irakasle eta ikasle gizonezkoekin ere gertatu izandu zait eta lanean ere gertatzen zait, bi neska gara eta beti zuka beraiek guri eta guk beraiei, baina euskeraz dakitenek beraien artean hika. Beste alde batetik asko dira gizonezkoak esaten dutenak itsusia iruditzen zaiela guri (emakumezkoek) hikaz entzutea.	1
- Lan ederra egiten duzuela zalantzarik ez daukat. Zuengandik ikastea ederra litzateke, nahiz eta jakintasun handiegirik ez dudan gai honen bueltan.	1
- Lan haundia egin beharko da Villabonan oso gutxi entzuten baita.	1
- Landu beharreko gai interesgarria.	1
- Nire ustez latsa kendu beharko genuke. Erdaldun batzuek euskeraz egin izan duten bezela, neskekin nokara emateko saltoa eman beharko nuke. Bai batzutan, eskola batean nabil, beste lankideren bati noka egin izan diot, baina esaldi motzak. Latsa kendu beharko genuke	1
- Luzeegia izan da galdetegia.	1
- Mila esker	1
- Motibatu egiten nau hikaz aritzeak, hazi egiten naiz. Sonridadea, intimitasuna, gertutasuna, grazia, autentikotasuna... Beharbada oso axaleko hizketaldietan erabiltzen dut, gustatuko litzaidake edozein testuingurutan erabiltzeko lizentzia hartzea, eremu formalago batean, esaterako.	1
- Nire aldetik gehiago erabiltzeko konpromisoa hartu.	1
- Nire ustez Villabonako herrian ez da asko ibiltzen hika hizkera.	1
- Ni hika hitz eginez oso arraro sentitzen naiz.	1
- Nik ez dut inoiz hika hitz egin. Eta ulertzea zaila egiten zait.	1
- Nik hitanoan hitz egiten jarraituko dut, hori da nire ekarpena.	1
- Nik uste dut bultza egun behar dugula.	1
- Nire iritziz euskera hitz egiteko oso modu polita da eta erakutsi egin beharko litzateke nahi izanez gero.	1
- Nire kezka bada, talde mixtoetan nola egin, hau da emakumeak eta gizonak daudenean.	1
- Nire ustetan bereziki guraso gazteetan zegoen gakoa, beraiei irakatsi hikaz mintzatzea seme alabekin, ez dutela non lotsatu.	1
- Nire ustez nire adinean ez hitz egitearen ondorioa guk ondo erabiltzen ez jakitea da.	1
- Noka berreskuratzea polita izango zen.	1
- Nolabait hau galtzen ez degula utzi behar, zorionak pausua emateagatik.	1
- Ohitura falta handia dago hikarekin. Familian inoiz hitz egin ez dudanez, arraroa egiten zait.	1

- Ondo dago inkesta.	1
- Ondo iruditzen zait horrelako inkestak egitea, horrelako hizkuntzak zein egoeratan dauden jakiteko.	1
- Orain lehen baino gehiago erabiltzen da euskara. Kanpoko jendeak euskaraz ikastea oso polita iruditzen zait, emozionatu egiten nau eta aberatsa iruitzen zait euskaraz egiten ikustea.	1
- Oso aberatsa den hitanoa abiadura handian galtzen ari dela belaunaldiz belaunaldi. Asteasun adibidez, horrelakorik ez dut somatzen gazteen artean, bai ordea villabonan. Orohar gazteleraren erabilera ere gehitxo.	1
- Oso gai garrantzitsua iruditzen zait. Hitanoa galtzeko bidean dagoela esango nuke. Dakitenek erabiltzea beharrezkoa da eta ez dakigunok ikasi eta ni behintzat erabiltzen hasteko prest nengoke. Galdu ezin dezakegun altxorra da. Eskerrik asko egitasmo honengatik.	1
- Oso gai ona iruditzen zait eta landu beharreko gai bat da.	1
- Oso garrantzitsua iruditu zait inkesta hau burutzea. Hausnartzeko baliagarria.	1
- Oso inkesta interesgarria izan dela iruditu zait eta modu berean, garrantzitsua hitanoaren erabilera gainbeheran doala iruditzen baitzait, nahiz eta ez dudan uste Billabonan lehen ere asko erabili izan denik. Eutsi horri!	1
- Oso interesgarria iruditu zait.	1
- Oso interesgarria iruditzen zait hika erabilpena bultzatzea.	1
- Oso lan polita iruditzen zait.	1
- Oso ondo iruditzen zait honi buruzko galdeketa bat sortzea, nik ez dut hika erabiltzen baina gustatuko litzaidake kaletik entzutea eta ez dela desagertu jakitea.	1
- Oso sinplea eta ulertzeko erreza izan dela inkesta.	1
- Pena da bere erabilera galtzea.	1
- Pena emango lidake galtzea eta gustatuko litzaidake jakitea.	1
- Pena merezi duela hika ez galtzeko esfortzu bat egitea.	1
- Pena merezi duela iruditzen zait.	1
- Pertsonalki, txikitan hika Lazkao Txikiren VHStan bakarri entzun nuen. DBH hastean, bat batean Asteasu, Alkiza eta Adunatik zetozen ikaskide berriek (mutilek) hikaz hitz egiten ziguten denoi eta baita beraien artean ere. Gutako gehienok ez genekien gure adineko umeek hikaz hitz egiten zutenik, gure ondoko herrietan! Aitonon kontu bat zen guretzako! Trasmisioa oso garrantzitsua da eta eskolak paper askoz garrantzitsuagoa izan beharko luke hitanoa ezagutarazteko, gure herrietako ondarea baita.	1
- Oso gai interesgarria, benetan gurea delako.	1
- Une honetan, transmisioa etenda dagoela ikusita, eskoletan ere zerbait egin beharko litzatekeela uste dut. Lan handia dago egiteko, baina, herri euskalduna izanda eta jendearengan gogoa pizten asmatuz gero, pixkanaka egoera hobetu daiteke.	1
- Zuen ikerketa hau martxan jarri izana oso interesgarria iruitzen zait, eskerrik asko.	1
- Zuka edo hika... modu batera edo bestera euskara plazara!	1
Guztira	95

Iturria: Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa, 2020"

4. ONDORIOAK

Ikerketa amaitzeko, aurreko orrietan landu diren ideia nagusi batzuei erreparatuko diegu. Amasa-Villabonan bizi diren 14 urtetik gorako herritar elebidunak 3.138 dira, eta horietatik 504k bete dute hitanoari buruzko galdetegia (%16,1). Ikerketaren hasieran jarritako helburua, 360 herritarren erantzunak jasotzea, gainditzea lortu da, beraz. Nahiz eta txostenean agertzen diren emaitzak ponderatuta egon (sexua eta adinaren arabera doiketa eginda), azpimarratzekoa izan da emakumezkoen artean eta herritar gazteen artean eman den parte hartze altua. Honako gaiak aipatuko ditugu ondorio nagusien artean: erregistro neutroa (zuka) eta hikaren artean gertatzen ari den kontrako bilakaera, kolektiboen arabera erabilera aldeak, etxeko transmisioa eta erabiltzeko / transmititzeko dagoen gogo edo interesa.

Erregistro neutroa (zuka) eta hika, kontrako bilakaeran

Ikerketak utzitako ondorioetan sartuz, lehenik eta behin, esan beharra dago argi ikusten dela orokorrean euskararen ezagutza eta erabilerak eta hitanoaren azken urteetan egin duten bilakaera ez direla paraleloak izan. Hau da, Amasa-Villabonan euskararen gaitasuna eta erabilera gutxi gorabehera mantendu egin da azken hamarkadetan (euskara gaitasuna %66aren bueltan mantendu da 1986ko neurketatik hona eta kale erabilera %36,2 eta %43,8 bitartean egon da azken neurketetan⁵) Aldiz, ikerketa honek erakusten duen moduan, elebidunen artean hitanoaren erabilera bereziki herritar helduen artean hitz egiten den erregistroa da (zehazki hitanoaren ezagutzari buruz ez da galdetu). Hitanoaren erabilerak herritar gazteen artean behera egin duela erakusten duen seinale moduan, pare bat adibide: batetik, inkestatuak anaiari edo arrebari hika egitea da ohikoena 55 urtetik gorako artean, bereziki 75 urtetik gorako artean. 55 urtetik beherako artean, ostera, zuka da nagusitzen den erregistroa. Bestetik, lagunartean hitz egiterako orduan, nahiz eta gazteen adin tarte batzuetan hitanoaren erabilera altuagoa izan besteetan baino, bereziki 55 urtetik gorako artean gertatzen da hika gehiago hitz egitea zuka baino. Beraz, belaunaldien arteko haustura bat nabarmentzen da, gutxi gora behera 55 urtetik gorako eta beherako artean.

Faktore ezberdinak egon daitezke hitanoaren erabileraren beherakadaren atzean. Dinamika horiek gizarte bizitzako maila desberdinetan gertatzen dira, elkarrekin uztartzen dira eta bata besteari eragiten dio. Ildo horretan, Iñaki Martinez de Lunak, Pablo Suberbiolak eta Asier Basurtok hizkuntza batek izan ditzakeen erabilerarako hiru maila nagusi deskribatzen dituzte (Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163): maila indibiduala (norbanakoarena, hizkuntza gaitasun erlatiboa eta erabilerarako motibazioa), maila mikrosoziala (egoera eta gizarte sareekin lotua, beste hiztunen

⁵ Eustat eta Soziolinguistika Klusterraren kale neurketetatik ateratako datuak.

identifikazioa eta haiekiko harremana biltzen dituen) eta maila makrosoziala (gizarteko jardunguneak eta gizarte-irudikapenei dagokiena, onarpena, prestigioa, erabilgarritasuna, balio sinbolikoa eta gisako elementuekin lotua).⁶

Amasa-Villabonan hitanoaren bilakaerari eragin dioten faktoreetara gerturatuko gara marko horretatik. Alde batetik, dimentsio makro sozialean gertatu diren aldaketak azpimarratu daitezke, azken urteetan izandako aldaketa sozial edota kulturalak, eta baita ere ekonomikoari dagozkionak ere. Aldaketa hauek Amasa-Villabonan (eta baita eremu geografiko zabalago batean ere) nola eragin duten aztertzeak beste ikerketa zabalago bat eskatuko luke, baina argi dago gizartean orokorrean ematen diren aldaketek herritarren hizkuntza ohituretan ere badutela eragina. Horren adibide da nagusiki baserri munduari lotuta dagoen hizkuntza erregistroaren, hitanoaren, erabileran izan den beherakada. Izan ere, inkesta honetako emaitzetan ikus daiteke baserrian bizi edo familia baserri mundukoa duten herritarrek erabiltzen dutela gehien hitanoa.

Beste alde batetik, dimentsio mikrosoziala dago. Hizkuntza bat erabilia izan dadin, beharrezkoa da hizkuntza ezagutu eta erabiltzen duen ingurune bat egotea. Erabakiorrak dira, noski, ingurune pertsonala, gertuko taldeen ohiturak eta jokaerak, familia, lagunak, lantokia, aisialdi eremua, etab. Ingurune horri lotuta doa eskola ere, eta euskara neutroa edo batua da eskolan jasotzen dena. Horrek nabarmen eragiten du hizkuntza erregistro konkretu baten transmisioa, kasu honetan, zukarena. Hitanoaren transmisioa, hortaz, eremu informalera mugatua gelditu da, batez ere, familia eta lagunartera. Eta zehazki, bi eremu horiek dira inkestatu gehienek aipatu dituztenak, hitanoarekin kontaktua izateko bide moduan (inkestatuen %65 baino gehiagok familia edo lagunartea, edo biak, aipatu ditu). Euskararen erregistro neutroa edo zukaren eskola bidezko transmisioak, beste arrazioen artean, hitanoaren ezagutza apaltzea eta erabilera gutxitzea ekarri du.

Bukatzeko, dimentsio indibiduala ere badago, eta bertan kontuan hartzen dira hizkuntzaren ezagutza, menperatze maila edota erabilerari lotutako aldagaiak. Kasu honetan, inkestatu askok aipatu dute hitanoa gutxi edo batere erabiltzen ez dutela erregistroa menperatzen ez dutelako, ingurukoek hikaz hitz egiten ez dakitelako edota lotsa sentitzen dutelako.

Oso probablea da aipatu diren faktoreen edota gehiagoren konbinazio bat izatea hitanoaren ezagutza eta erabilera apaldu dutenak. Arrazoiak arrazoi, datuek erakusten dutena da Amasa-Villabonan euskararen ezagutza eta erabilera gorabehera gutxirekin mantendu dela azken 30 urteetan, baina euskararen baitan hitanoak indarra galdu duela erregistro neutro edo zukaren mesedetan.

Erabilera ehuneko ezberdinak hainbat kolektiboren artean

Ikerketan zehar Amasa-Villabonan orokorrean hitanoaren egoera zein den aztertu da, baina esan daiteke udalerrian bertan eta bertako herritarren artean kasuistika ezberdinak ematen direla. Hau da, hitanoaren erabileraren inguruko datuak dezente aldatzen dira hainbat aldagaien arabera.

Hasteko, ezaugarri geografikoa dago. Alegia, Amasan eta Villabonan oso datu ezberdinak ikus daitezke ikerketa osoan zehar. Hitanoaren ezagutza eta erabilera Amasan altuagoa da Villabonan baino. Amasarren artean hika bere egunerokoan entzuten dutenak %16,3 dira eta Villabonan ehuneko

⁶ Martinez de Luna, I.; Jausoro, N.; Berrio-Otxoa, K. eta Idirin, I. (1998). "Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 26, 59-84.

hori ia hiru aldiz txikiagoa da (%6,3). Familiakideekin edota lagunartean hika erabiltzen dutela diotenen ehunekoa ere altuagoa da Amasan Villabonan baino.

Bestalde, ezaugarri soziodemografikoek ere eragiten dute hitanoaren ezagutza eta erabileran. Inkestatuek hurbileko pertsonen nola egiten dieten erantzutean, argi ikusten da gutxienez bi faktorek asko baldintzatzen dutela jokaera hori. Batetik, pertsonaren generoa daukagu: hau da, gizonezkoei emakumezkoei baino hika gehiago egiteko joera nabarmena da. Eta bestetik, interlokutorearen adinak dago: inkestatuak hika gehiago egiten du parean duen pertsona bere adinekoa edo gazteagoa bada, eta zukara gehiago joko du parekoa helduagoa denean. Bi faktore horiek elkarren artean nahasi egiten dira, eta ondorioz, gertatzen dena da Amasa-Villabonako herritarren artean hika gehien hitz egiten den egoera gizonezkoen artekoa dela, bereziki altua adin beretsuko gizonen artekoa (anaien artekoa, lagunen artekoa eta abar).

Amasa-Villabonan hitanoaren etxeko transmisioaz zenbait gako

Nola hitz egiten diete gurasoek inkestatuei? Eta inkestatuek beren seme-alabei? Aztertu diren hiru belaunaldietan, ikusi da hitanoa etxean jaso duten inkestatuek errazago egiten dietela seme-alabei hika. Are gehiago, oso gutxi dira gurasoen aldetik hitanoa jaso ez eta beren seme-alabei hala hitz egiten dietenak. Gurasoen aldetik jaso den euskara erregistroa eta seme-alabei transmititzen zaienaren artean eragina badagoela antzematen da.

Bestalde, Amasa-Villabonako hiru belaunaldiren arteko transmisioa aztertuta, ondoriozta daiteke hitanoaren etxeko transmisioa behera egiten ari dela. Hau da, gurasoen aldetik hitanoa jaso dutenen ehunekoa baino txikiagoa da seme-alabei transmititzen dietenena. Galera hori, baina, modu ezberdinean edo intentsitate ezberdinarekin gertatzen da pertsonaren generoaren arabera. Emakumezkoak tarteko dauden ekintza komunikatiboetan, bereziki emakumeen arteko elkarriketetan, galera indartsuagoa da gizonezkoen artean baino.

Seme-alabak dituzten inkestatu emakumezkoen artean, alabari %3k egiten dio hika eta %87k zuka (emakumezko hauek amaren zein aitaren aldetik %16k hitanoa jaso dute). Semeei, oster, hika gehiago egiten diete alabei baino, kasuen %10ean, alabei baino hiru aldiz gehiago. Inkestatua gizonezkoa den kasuetan altuagoa da hikaren erabilera seme-alabekiko, baina hemen ere alabei gutxiago hitz egiten zaie (%7) semei baino (%24), kasu honetan ere hiru aldiz gehiago.

Hortaz, oso argi ikus daiteke inkestatu emakumezkoen artean hitanoaren transmisioa galtzen ari dela. Hau da, gurasoen aldetik hika jaso zutenen %13k soilik transmititzen die beren alabei eta %30ek beren semei. Bestalde, gurasoen aldetik zuka jaso duten pertsona batzuk badaude beren seme-alabei hika hitz egiten dietenak, baina oso ehuneko txikia da (%1 eta %4 artekoa).

Inkestatu gizonezkoen artean datua oso antzekoa dela ikus daiteke. Hau da, gurasoen aldetik hitanoa jasotzen dutenen kasuan, %12k transmititzen diete beren alabei eta beste guztiek zuka egiten diete. Semea den kasuan, gurasoengandik hitanoa jaso dutenen %40 inguruk transmititzen die beren semei hitanoa.

Ikasteko eta erabiltzeko gogoia, transmititzeko beharra

Hitanoaren transmisioa eta erabilera behera badoa ere, Amasa-Villabonako herritarrek hitanoari buruz duten jarrera aldekoa da. Inkestatuen hamarretik seiri (%60,8) hika gehiago hitz egitea gustatuko litzaieke eta diskurtso hori dutenen artean parekotasun handia dago emakumezkoen eta gizonezkoen artean (%59,3 eta %62,4 hurrenez hurren), baita amasarren eta billabonatarren artean ere. Aldiz, erantzunak adin-tartearen arabera aztertuta, hika gehiago erabili nahiko lukete 19 eta 35 urte artekoek (%79 inguruk) eta baita 36 eta 45 urte artekoek ere (%70ek). Gainerako adin tarteetan baxuagoa da ehunekoa.

Hitanoa nahi bezainbeste ez erabiltzearen arrazoi nagusia gaitasun falta (hika hitz egiten ez jakitea edo guztiz ez menperatzea) dela diote herritar askok (%37,3). Geroz eta gazteago izan, orduan eta indar handiagoa hartzen du argudio honek. Bigarren arrazoi aipatuena izan da ohiturak aldatzea nekeza egiten dela (%33,9) eta hirugarren arrazoi nagusia gainerako herritarrek ere ez dutela hitanoa erabiltzen (%31,3).

Hala eta guztiz ere, hitanoa bultzatzeko nahia badago, gutxienez maila diskurtsiboan. Hitanoaren erabilera bultzatzeak merezi duen galdetuta, herritarren hamarretik zazpik (%72,0k) baiezkoa erantzun du. Eta bereziki altua da hitanoa bultzatzearen aldeko jarrera hika gutxien erabiltzen duten kolektiboen artean: emakumezkoen (%75,6), 55 urtetik beherakoen (%90 inguru) eta gurasoek hika egiten ez dieten herritarren artean. Hitanoa bultzatzeko proposamen nagusien artean, hitanoa belaunaldi berriei erakustea jaso da, eskolaren bidez, familiaren bidez.

Euskararen sustapena alde asko dituen lanketa da, eta faktore gehiago sartzen dira jokoan begirada hitanora zuzentzen baldin badugu. Edozein kasutan, ikerketa honetatik ateratzen diren ideien artean kontuan hartzeko aldaketa batzuk nabaritzen dira eta aurrera begira jorratu daitezkeen bideak identifikatzen dira. Izan ere, hitanoaren gaian belaunaldi gutxiren tartean buelta eman du hizkuntza erregistrora gerturatzeko moduak eta bere balorazioak. Gaur egun ikusten dugu hitanoa gehien erabiltzen duten herritarrek daukatela, oro har, erregistro horren inguruko balorazio eta ikuspegirik negatiboena (balio eta kode jakin batzuekin lotutako hizkera dela ikusten dutelako), eta, aldiz, belaunaldi gazteagoek gutxiago erabiltzen baldin badute ere, konnotazio negatibo hori galtzen doala dirudi eta euskararen elementu gehigarri eta erregistro informala aberasteko tresna moduan ikusten da. Hitanoak bizirauteko erronka inoiz baino handiagoa den arren, norabide aldaketa horrek aukera berriak zabaltzen ditu.